goienа
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA
2013-10-24
EGUENA
571. ZENBAKIA
13. URTEA
DOAKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

## "Erakundeen inplikazioa gehitu behar da"



**Arantza Tapia** | Garapen Ekonomikoko sailburua | 6

## 'Parot doktrina' indargabetuta, lau preso zain

Debagoieneko lau presori eragin diezaioke ebazpenak | 5

Antzuolako eskolako bi talde aurrefabrikatuetan daude | 18



Verdiren 'La Traviata' opera eguaztenean Arrasaten | 24




Su Ta Garrek 'Bizirik gaude' diskoa aurkeztuko du bihar Oñatin | 25



# MARKEL IRIZAR: "NIREA DEFENTSAKO LANA DA"

Trek Factory Racing taldearekin sinatu du kontratua, Tourrean eskaintza formala jaso eta gero. | 22

Markel Irizar Tellamendiko tontorrean (Aramaio gainean); egunok aprobetxatu ditu oñatiarrak mendiko bizikletan ibiltzeko. | XABIER URTZELAI




Sare sozialetan zabaldu den irudia.

# Indarrak batu eta etorkizuna garantizatzeko pausoen ordua

Joan den astean Fagorrena jakin genuenetik hona egoerak bere horretan segitzen duen arren, joan den asteak erakusten zuen kolore beltzak iluntasun apur bat galdu du. Elkartasun, elkarlan, lasaitasun... mezuak hasi dira entzuten. Horiek betetzen hastea da hurrengo pausoa. | 2

## SINADURAK

**Mundua, zein txikia** | 7
JUAN LUIS AZKARATE

7 | **Ze giro dago Arrasaten?**
GOIATZ ARANA

**Tantaz tanta** | 32
AGURNE BARRUSO

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 5 | IRITZIA 7 | ELKARRIZKETA 6 | HERRIAK 10 | KIROLA 22 | KULTURA 24 | ZURE IRAGARKIAK 27 | TELEBISTA-IRRATIA 28 | EZKONTZAK 29 | ESKELAK 29 | NON-ZER 30




## ORDU ALDAKETA

Neguko ordutegia estreinatuko dugu domekan: goizeko hiruretan ordu biak izango dira. Ez ahaztu!



Aiherrako ikuspegia. | GOIENA

## Antzuola-Aiherra senidetzearen ospakizuna domekan | 10

☎ 943 71 48 45
Hemen
www.hemen-garbiketak.com
Zure konfiantzazko garbiketa enpresa
Mantentze garbiketak, obra amaierakoak eta garbiketa orokorrak:
- Bulego eta lokalak
- Jabeen erkidegoak, garajeak
- Lokal komertzialak, azalera handiko saltokiak, hotelak eta enpresak
- Eraikin instituzionalak, eskolak, kiroldegiak, anbulatorioak, eta abar.
Intxaurtxueta 16 Behea • ESKORIATZA • hemen@hemen-garbiketak.com

# Esperantza pizteko unea iritsi da orain

- Elkartasun mekanismoak indartu egingo dituzte
- Gaur batzartuko da Kontseilu Soziala Fagorrekin

**UBANE MADERA** | DEBAGOIENA

Fagor Etxetresnen lantegiak geratu zirenetik astebete pasatu da; berba, zeresan, eztabaida… asko eta asko entzun eta ikusi dugu, baina egoerak lehengotan segitzen du: *impass* deserosoan. Batez ere, informazioa sumatzen da faltan; bereziki, langileen artean.

"Batez ere, zalantza handiak ditugu. Garbi dugu 1.800 lagun Fagor Etxetresnetakoak eta Edesakoak astelehenetik aurrera etxean gaudela, garbi dugu honek bai Euskal Herrian, bai bailaran eta kanpoan ditugun Frantziako eta Poloniako enpresetan ere kalte handia eragin duela. Langileen artean dugun sentimendua da galduta gaudela, ez dakigulako, oraingoz, zeintzuk izango diren irtenbideak. Eta horiek azaltzen joan arte duda asko daude kolektiboan. Eta pena ere badugu, egun batetik bestera jausi egin da-eta dena. Sentimendu asko daude: urte askoan bertan lanean egon den jendearena, lankideen arteko harreman sendoa momentu batetik bestera apurtu egiten da… sentimenduak bi dira: nahastuta gaudela, ez dakigulako gure irtenbideak zeintzuk izan behar diren, eta bestea penarena, galtzen duzun guztiarengatik". Hala helarazi dio GOIENAri Andoni Azkargortak, Fagor Etxetresnetako langileen izenean, bertako Kontseilu Sozialeko bozeramaileak.

**Lan ildoak zehazten**

Etxean bai, baina geldi ez daudela ere kontatu du Azkargortak. Astelehenean Basaurin manifestazioa egiteaz gainera, besteak beste, gaur (eguena) eta atzo bi batzar egin dituztela jakinarazi du. Kontseilu Sozialeko kideek euren artean, batetik, "hurrengo lan ildoak zeintzuk izango diren konkretatzen joateko". Eta beste bat Fagor Talde mailan: "Gure egoeraren berri eman eta ekarpenak edukitzeko talde mailatik".

Izan ere, albiste hau idazterakoan (eguaztena), oraindik ere Korporazioko ordezkariekin zuzeneko harremanik izan gabe segitzen zuten Fagor Etxetresnetako langileen ordezkariek. "Momentuz, ez daukagu berririk. Pentsatzen dugu hurrengo egunotan izango dugula euren asmoen inguruan berri gehiago, eta eskatuko duguna da konkrezio gehiago 1.000 lanpostuko plan horren gainean. Asmoa da horiek gauzok zehazten joatea".

Hain zuzen ere, Azkargortak berretsi egin du euren eskaera nagusiek joan den egubakoitzean plazaratutako berak izaten segitzen dutela: "Koporazioak esaten duen 1.000 lanpostuko plan hori zehaztea; irtenbidea ematea 1.800 langileri; irtenbidea ematea horrek eragindako filialei, hornitzaileei… egindako kalteei. Gure enpresak egindako galerekin, gure zorrekin zer pasatuko den jakitea falta zaigu eta horrekin lotuta eskaera zuzena egiten dugu irtenbidea edo, behintzat, esplikazioa emateko, eta, baita ere, ekarpenak



Astelehenean Basaurin egin zuten manifestazioa. | IRATI GOITIA

eta aktibo ez diren bazkideen maileguekin zer pasatzen den argitzen joateko. Bi mobilizazio egin dira, eta hor eskaerak egin ditugu. Ikusi behar dugu ze erantzun jasotzen duten eskaera horiek, eta horren arabera ikusiko dugu aurrera begira ze pauso eman".

Izan ere, Fagor Etxetresnetako Kontseilu Sozialeko kideek ez dute baztertzen mobilizazioekin segitzea. Baina edozeren gainetik behar eta gura dutena da erantzunak jasotzen hastea.

**Negozio berrien promozioa**

Horren harira, Mondragon Korporazioak atzo, eguaztena, Goienari bidalitako komunikatuan jakinarazi zuen kooperatiban dituzten elkartasun mekanismoak indartu egingo dituztela egoera zail honi aurre egiteko. Eta iragarri dute "konpromiso sendoa" hartu dutela "negozio berrien promozioa sustatzeko, lanpostu aukera berriak sortzeko" (Behean dago oso-osorik irakurgai).

**Geyser: lasaitasun mezua**

Bien bitartean, momentuko errealitatea da Fagor Etxetresnetako eta Edesako ia 2.000 langile lan barik daudela. Salbuespen birekin: Geyser-Gastech SA (Fagorren "semeetako" bat) eta Fagorreko zerbitzu teknikoa.

Bergaran dagoen Geyser-Gastech SA lantegiaren kasua apartekoa da. Gehienbat, lanean segitzen dutelako, oraingoz, behintzat, 170 langilerendako lana bermatuta dutelako; eta, gainera, ildo horretan, bertako arduradunek lasaitasunerako mezua gura dute helarazi, bai euren hornitzaileei, eta baita bertan lanean dihardutenei ere.

Joseba Beldarrain da Geyser Gastech SAko gerentea, eta hark kontatu du zela joan den eguaztenera arte (urriaren 16) normal jardun zuten lanean eta hortik aurrera etorri direla aldaketak. "Urriaren 17an eta 18an ez genuen lanik egin, Fagorrekoaren ostean lantaldea berrantolatzeko. Hori egin ostean (248 langiletatik 77 kalean geratu dira), oraingo astelehenaz geroztik lanean dihardugu, eta hala segituko dugu Vaillant Group alemaniarrendako produktuak hornitzen. Gu ez gaude hartzekodunen aurre-lehiaketan sartuta, eta Vaillantek epe motzean ez du beste aukerarik hemen jarraitzea baino. Bestalde, Fagor ez dugu galdutzat ematen. Guri, behintzat, hori transmititu digute. Eta Fagorrek gurekin

>

## Mondragon Taldeak Goienari asteon bidalitako komunikatua

**Indarrean dagoen eredua**

*Berrestu egiten dugu pertsonen protagonismoan eta elkartasunean oinarritutako bere eredu kooperatiboaren baliagarritasun eta indarra. Ez dugu uste, inondik inora, eredu kooperatiboa kolokan jarri behar dugunik, nahiz eta Fagor Etxetresna Elektrikoak egoera zailean egon. Izan ere, oso dibertsifikatuta dauden industria sektoreetan liderrak diren enpresak ditu MONDRAGONek, hala nola, makina erremintan, jasokuntzan, kontsumo ondasunetan, industriarako osagaietan, automozioan, aholkularitzan, edo eraikuntzan. Fagorri dagokionez, gure bailaran aski ezaguna denez, etxetresna elektrikoen sektorera bakarrik mugatzen ez den marka bat da, beste zenbait industria jardueratan punta–puntakoak diren kooperatiben merkatu ikurra ere baita, adibidez, automozio, osagai elektroniko edo ekipo ondasun sektoreetan. Beraz, konfiantza osoa agertu nahi dugu gure eredu kooperatiboan.*

*Ezaguna da baita ere, zenbait elkartasun mekanismo dugula komunean eta mekanismo horiek taldea osatzen duen kide bakoitza indartu egiten dute. Mekanismo horiek sorreratik funtzionatu dute eta baliagarriak izan dira kooperatiben nazioartekotze eta berrikuntza programak abiatzen laguntzeko, jarduera berriak garatzeko eta zailtasunak dituzten kooperatibei laguntzeko. Mekanismo horiek indartu egingo ditugu egoera zail honi aurre egiteko, eta Korporaziotik dagoeneko konpromisoa sendoa hartu du negozio berrien promozioa sustatzeko, lanpostu aukera berriak sortzeko; eta langabe geratu diren pertsona guztiei konponbide bat emateko asmoz. Elkartasunak ekarri gaitu honaino, eta elkartasunean oinarrituko da gure etorkizuna, batez ere oinarri horretatik etorriko baita Fagor Etxetresna Elektrikoetako hainbat bazkide eta langileren egoerari buelta emateko aukera.*



**JOSEBA BELDARRAIN**
GEYSER-GASTECH SA

## "Fagor ez dugu galdutzat ematen; buru-belarri ari dira lanean"


ANE ETXEBERRIA

"Urriaren 17an eta 18an ez genuen lanik egin, Fagorrekoaren ostean lantaldea berrantolatzeko (248 langiletatik 77 kalean geratu dira). Oraingo astelehenaz geroztik, baina, lanean dihardugu, eta hala segituko dugu Vaillant Group alemaniarrendako produktuak hornitzen. Ez gaude hartzekodunen aurre-lehiaketan sartuta, eta Vaillantek epe motzean ez du beste aukerarik hemen jarraitzea baino. Bestalde, Fagor ez dugu galdutzat ematen. Buru-belarri ari da egoera konpontzeko saiakera egiten. Irrikitan egongo ginateke Fagorrendako berriro lanean hasteko".

**ALECOP ETA AUSOLAN**
MONDRAGON TALDEKOAK

## "Jakinekoa zen atzetik laguntzeko borondatea zegoela"

Jose Antonio Ieregik, Alecopeko gerenteak, azpimarratu du, besteak beste, beti izan dutela Fagorri laguntzeko borondatea: "Joan den astera arte lerro eletrikoen gure fakturazioaren %50 Fagorrendakoa zen. Lantaldean izan duen zuzeneko eragina da Lagun Aroko bazkide moduan gure bost bazkideri eragiten diola. Edozelan ere, lerro elektrikoarekin aurrera egiteko moduan geundeke, Taldearen laguntzarekin. Bestalde, salmenta biziak gehi bidean dauden produktuenak eta osagai esklusiboak kontuan hartuta, Fagorrek gurekiko duen zorra milioi bat euroko litzateke. Egia esan, gertatutakoarekin kolpe handia hartu dugu. Kobratze kontuetan gogorrago jarri izan bagina, ez liguke horrenbeste eragingo. Beste hornitzaile batzuk 30 egunera kobratzen zieten; guk, berriz, 150 egunera. Jakinekoa zen horren atzetik laguntzeko borondatea zegoela".

Ausolan da, baita ere, zuzeneko eragina jasan duen Taldeko beste enpresa bat. "Eragin zuzena San Andresko gure jantokian bazkaltiarren galera izan da. Hain justu, 600 bazkaltiarretik 300era jaitsi da modu zuzenean. Jantoki horretan Fagor Arrasate, Elektronika eta Automationeko bazkaltiarrak ere badaude. Bestalde, hemendik aurrera ikusiko dugu bailarako ikastola eta ikastetxeetako eguneroko bazkaltiar kopuruan ze eragin duen itxiera honek", diote bertako iturriek.

**EXABIER ARRIETA**
KONTSEILU SOZIALA

## "Kexua baino, arreta jartzeko eskaera izan zen joan den astekoa"


UBANE MADERA

"Kalean geratu diren lan bazkideak ordezkatzen ditugu. Manifestazioekin, (Arrasaten egin genuenarekin eta Basaurikoarekin) 2.000 pertsona horien arazo soziala irudikatu nahi dugu. Deialdi bat ere egin nahi dugu kooperatiben arteko mekanismoak eta elkartasuna martxan jar daitezen, ahalik eta lasterren, egoera oso konplikatua dela dakigun arren (jende kopuru handia delako), guztion artean aurrera ateratzeko. Uste dugu martxan jarri behar garela. Aurreko astea nahiko konplikatua izan zen; kexua baino gehiago izan zen egoeraren gainean arreta jartzeko eskaera. Lan bazkideoi bi alorretatik eragiten digu: batetik, langile bezala ez dugulako lanposturik; eta bestetik, bazkide-jabe bezala, ardura dugu gure kooperatiba den honekin zer pasako den. Bestalde, jendea zoriondu nahiko nuke, Arrasaten jarrera eredugarria izan zen-eta".

**MAIKA PEREZ DE ARENAZA**
BAZKIDEA

## "Buruarekin ez dut esperantzarik, baina bihotzarekin bai, zergatik ez?"


IRATI GOITIA

"Egosketan Arrasaten egiten nuen lan orain arte. Ahizpa batzuk ere baditut bertan lanean. Aportazioak ere baditugu. Denetik sentitzen dut: haserrea, beldurra...Ez dakigu zer pasatuko den. Ez dakigu egosketak aurrera egingo duen ala ez. Mobilizazioak egiten gabiltza, ea eurek zerbait esaten duten. Behintzat zerbait jakiteko. Lazo berdea eman didate, eta uste dot esperantzarako keinua dela. Buruarekin ez dut esperantzarik, baina bihotzarekin bai. Diru piloa falta da hori martxan jartzeko, eta buruarekin ez dut esperantzarik. Bihotzarekin bai, zergatik ez".



**INAZIO ARREGI**
TOKIKOMEKO ZUZENDARIA

## "Fagorrek Irizarren eta Realaren bide beretik abiatu beharko du"


IMANOL SORIANO

"Hitz gutxiko ohar baten bidez jakin dugu Fagor Etxetresnek ezin dietela aurre egin dituen zorrei, eta hartzekodunekin kitak, epe luzapenak eta, oro har, ordainketak eta baldintzak negoziatu nahi dituztela. Beharrezkoa izango da, baina ez nahikoa. Globalizazioaren arrimuan zapatilak eta kamisetak egiten hasi ziren herrialdeak etxetresnak egiteko gauza dira gaur. Gipuzkoako erakunde ikurrak pasatuak dira egoera honetatik. Esaterako, Irizar eta Reala. Fagorrek bide beretik abiatu beharko du, krisiaren sakonenean balio kooperatiboen baliagarritasuna frogatuz".

**MARTIN GARITANO |**
DIPUTATU NAGUSIA

## "Kooperatibismoa gaur egun dugun eredurik onena izan daiteke"


IMANOL GALLEGO

"Gipuzkoako Diputazioak Eusko Jaurlaritzarekin, Mondragon Taldearekin berarekin eta Debagoieneko Mankomunitatearekin batera abian jarriko du lan ildo bat. Eta beste lan ildo bat izango da Debagoieneko udalerrietan azterketa sakona egitea, jakiteko zer-nolako eragina daukan gaur egun Fagorrek bizi duen krisi latzak; gaur bertan martxan jarriko ditugu bi lan ildo horiek. Garapen Agentziaren laguntzarekin udalerri bakoitzak azterketa egingo du ikusteko zer-nolako eragin zuzena eta zeharkakoa izango duen norbere herrian (...) Kooperatibismoa gaur egun hemen daukagun eredurik onena izan daitekeenik ez dut sekula zalantzan jarriko. Beste kontu bat da gaur egun kooperatibismoak Arrasaten bizi duen krisia eta zer gertatu den eta zergatik gertatu den. Baina kooperatibismoa ideia bezala neure onean mantentzen dut.".

**JESUS MARI ELKORO**
IBAI ARTE ELKARTEA

## "Konfiantza izan behar dugu Fagor Taldearen indarrean"


IRATI GOITIA

"Ez dakigu zer gertatuko den, ze eragin izango duen Arrasateko komertzioetan. Badakigu kontsumoa txikituko duela. Baina ez dakigu zenbateraino. Askori bizi izateko era aldatuko dio, baina hori arlo askotakoa izan daiteke. Agian, bultza dezake herrian gehiago gelditzera, herrian gehiago kontsumitzera; nahiz eta, kontsumoa orokorrean txikitu. Esperantza dugu Fagorrek jarraituko duela, esperantza osoa Fagor Taldeak jarraituko duela, baina, aldaketekin. Agian, produktu batzuk Arrasatetik kanpora eramango dituzte edo beste batzuk itxi, baina markak jarraituko du. Ez dut uste gure bezeroek orokorrean Fagorrekiko aldaketarik izango dutenik (...) Mezua bidali nahiko nieke Ibai-Arteko bazkideei konfiantza izan dezaten taldearen indarrean, kooperatibek egin duten moduan, denok aurrera egin dezagun".

**BIXENTE DORRONSORO**
IKER SUKALDEAK

## "Beste marka bati gauza bera pasa zitzaion eta orain produktu onak ditu"


OIHANA ELORTZA

"Bolada txar hau pasa bitartean beste etxe batzuetako etxetresnak saltzen hasi beharko dut, baina oso baikorra naiz, eta egoera honi laster buelta emango diotela ziur nago. Beste marka bati ere gauza bera gertatu zitzaion orain urte gutxi eta gaur egun produktu onak ditu, lehen baino katalogo txikiagoa du, baina produktu txukunak. Hemen Fagor Etxetresnak ondo saldu izan dira. Tarteka egon da oso ona atera ez den produkturen bat, baina, orokorrean, ondo saldu dira Fagor produktuak. Orain, gainera, oso ondo funtzionatzen duten produktuak ari zen egiten".


Bailarako ia alkate guztiak eta diputatu nagusia, astelehenean . | IMANOL GALLEGO

**AITOR OTXOA**
ARRASATEKO TAXILARIA

## "Familian moduan, txarto dagoenari lagundu egin behar zaio"


IRATI GOITIA

"Denoi moduan eragingo dit. Arrasateko taxilariek Fagorrendako lan handia egiten dugu. Lanak beherantz egin zuenean, nahikoa ematen zuen kooperatibak. Orain etorri dira krisia eta hau... Behintzat, ea orain jendea birkolokatzen duten... Jende guztiak dauka lan egiteko eskubidea. Guztiok gaude oso arduratuta, baina ea lasaitasun apur batekin zerbait lortzen dugun. Uste dut Eusko Jaurlaritzak zein Espainiako Gobernuak lagundu egin beharko luketela. Lehenago gure dirua, denon dirua banketxeei injektatu zieten inori kontsultatu barik, eta halako enpresa indartsua (Espainian eta munduan eta kooperatibismoaren barruan) izanda, kontuan hartuta halakorik sekula ez dela pasatu, ba, lagundu egin beharko luke. Eta kooperatiban, kooperatu egin behar da, familia barruan moduan, txarto dagoenari lagundu egin behar zaio".

> zorra duen arren, zor horren bi herena aseguratuta dugu".

Geyser-Gastech SAko langileen egoerari dagokionez, berriz, "lantaldeko 50 izan ezik enpresarekin zuzeneko kontratuak dituztelako, gainontzeko guztiak (kalean geratu direnak barne) Fagorreko bazkideak gara", kontatu du Beldarrainek.

### Elkarlanerako asmoak

Bestalde, lasaitasunerako mezu zuzenik ez, baina lanerako eta elkarlanerako prestutasuna bagabiltza ikusten egunotan erakundeei dagokienez. Astelehenean bertan, "Fagorren sortutako egoera azterkeko" batzarra egin zuten Debagoieneko ia alkate guztiek eta Martin Garitano Gipuzkoako ahaldun nagusiak, eta bukaeran iragarri zuten hasi direla lanerako ildoak zehazten.

### Indarrak jartzeko unea

Agerian dagoen moduan, beraz, ikusteko eta jakiteko asko dago oraindik: eragin zuzenaz aparte, zeharkako eragina zenbaterainokoa izango den, zer pasatuko den Mondragon Taldeko aldi baterako langileekin Fagorreko 1.000 bazkide birkolokatu beharra badago...Dena dela, agerian dagoena da, baita ere, Fagorri, bertako langile ohi eta bazkideei, hemengo zein Euskal Herriko erakunde eta ekonomiari, eta jakina, Debagoien guztiari komeni zaiola orain sortu den egoera latzari irtenbide positiboa ematea. Horretan indarrak jartzeko unea iritsi da.

## Arizmendi Ikastolaren elkartasun mezua

*Gu gara, zu eta ni, euskaldun eta kooperatibista, euskal ekintza kooperatiboa praktikatzen dugu, zuk eta nik, geuk, hemen eta orain, Leintz Bailaran. Arizmendi Ikastola, Mondragon Taldeko kooperatiba da, hezkuntza-kooperatiba, hain zuzen. Ikastola garelako, hezkuntza-kooperatiba euskalduna izatea dugu ezaugarri bereizgarria. Geure seme-alabak, haur eta gazteak, geure ikasleak, alegia, lagundu nahi diegu, bizitzan sortuko zaien edozein egoerari aurre egiteko pertsona euskaldun konpetenteak izaten. Eta aldi berean, guk, helduok, ikastolako profesionalok, gurasook eta kolaboratzaileok geure burua hezten dugu, heziz elkarri laguntzen diogu, geure ikasleekin batera, geure inguruko eragileekiko interakzioan. Une mikatzetan du abagunerik onena elkartasuna erakutsi nahi duenak, gozoetan ere ezinbestekoa dela ahaztu gabe. FAGOR Etxetresna Elektrikoak kooperatiba, egoera larrian dugu, enpresa bera eta bertako langile den pertsona bakoitza. ARIZMENDI ikastola osoak bere elkartasuna agertu nahi du, bai FAGOR Etxetresna Elektrikoak kooperatibako langileei, eta bereziki ikastolan bertan zuzen edota zeharka egoera larri honek eragiten dien guztiei. Eta elkartasunarekin batera, ARIZMENDI ikastolak ekingo dio egoera larri horrek eskatzen dion erantzun eraginkorra bilatzeari, bai epe laburrera, bai epe ertainera, izan ere, gure ikastolak bere ikasleak hezi behar ditu edozein egoerari aurre egiteko, euskalduntasunetik eta kooperaziotik. Halaxe jokatu beharra dauka, hezkuntza-kooperatiba bezala, alegia, bere inguruan suertatzen zaizkion egoera guztien aurrean, beren ikasleek lekukorik onena izan dezaten hitzetan eta ekintzetan. Animo, horretan saiatuko gara, zu eta ni, gu, eta erakutsi dezagun euskaldun eta kooperatibista izaten dakigula.*

**Jokin Mujika, Arizmendiko lehendakaria**

# 'Parot doktrina' indargabetuta, Espainiako interpretazioaren zain

Estrasburgoko ebazpenak preso dauden lau debagoiendarri eragin diezaieke




Bergarako plazan egin zuten batzarra. | IURE EIZAGIRRE

**I.E./I.G.** | ARRASATE

Giza eskubideen aurkakotzat jota, Estrasburgoren ebazpenak atzera bota du Espainiaren helegitea. Europako Auzitegi Gorenak ebatzi du legearen eta giza eskubideen aurka izan dutela Ines del Rio presoa 2008a ezkero espetxean. Ebazpena, Europako Itunak hala ezartzen duelako, nahitaez bete beharra du Espainiak.

**Alderdien erreakzioak**

Itxaso Atutxa EAJren BBBko presidentearen iritziz, "albiste ona da" Estrasburgoko Auzitegiak emandakoa. Hori horrela, Espainiako Gobernuari "lehenbailehen" ebazpena betetzeko neurriak hartzeko galdegin dio. Ezker abertzalea urrunago joan da, eta Pernando Barrenak "bakeari aukera bat emateko" unea dela aldarrikatu du.

Idoia Mendia PSE-EEren bozeramaileak, "orain Espainiako Gobernuari ebazpena betetzea dagokio" esanda, ez du sententziaren inguruko balioraziorik egin. Iñaki Oiartzabal Euskadiko Alderdi Popularraren idazkari nagusiak, aldiz, oso bestelako iritzi dauka. Haren ustez, Europako erabakia "akatsa da eta min egiten die ETAko biktimei". Haren iritziz, *Parot doktrina* "bidezkoa" zen terrorismoaren biktimentzat, eta ETAren kontrako borrokan "oso erabilgarria".

Oiartzabalen hitzen ostean, ikusteko dago *doktrina* aplikatu zaien presoei zelan eragingo dien, Espainiako Auzitegi Nazionalak adierazi baitu banan-banan aztertuko dituela helegiteak. Debagoieneko lau preso daude egoera horretan: Jesu Mari Zabarte, Jose Gabriel Urizar, Luis Mari Azkargorta eta Xabin Usandizaga.

**Espainiako Gobernuak ebazpena nahitaez bete beharko du**

Astelehenean Bergarako plazan presoen aldeko mugimenduak batzar informatiboa egin zuen. Ebazpena baloratzeaz gain, azaroaren 17an Luis Mari Azkargorta *Kanto* bisitatzera joateko dei egin zuten.

60 pertsonatik gora batu ziren atzo San Martin plazan Estrasburgoko Epaitegiak emandako ebazpenaren inguruan presoan aldeko mugimenduak egindako balorazioa entzuteko. Erabakia egindako lanaren ondorio dela adierazi zuten batzarrean, baita *Parot doktrina* indargabetu izanak beste preso batzuen askatasuna ekartzea espero dutela ere; tartean, *Kanto* bizilagunarena.

**Azaroaren 17an, Zuerara**

Data heldu baino lehen *Kanto* etxean izateko itxaropena badute ere, Zuerako espetxera martxa egingo dute. Antolatzaileek espero dute bergararrez gain Aramaiotik ere jende asko joatea.



Txartelak hartuko du paperezko errezeten tokia. | IMANOL GALLEGO

# Debagoienak agur esan dio paperezko betiko errezetari

Oñatin eta Aramaion proba modura ezarri ostean, bailara osora zabaldu da errezeta elektronikoa

**IMANOL GALLEGO** | ARRASATE

Gorriak, berdeak... etxean gaixo kronikoren bat dutenek ongi ezagutuko dituzte bi kolore hauek. Errezetak etxeetan bolo-bolo izaten diren paper bilakatu dira eta, orain, Osakidetzak Debagoien osoan ezarri duen sistema berriari esker, agur esango diegu. Agur hori, baina, ez da erabatekoa izango, oraingoz, larrialdietan, paperezko errezetekin jarraituko dute-eta.

Bi aste pasa dira sistema berria bailara osoan abiarazi zutenetik, eta, orokorrean, jendeak ongi jaso duen arren, jende nagusiak galdera ugari egiten ditu. "Etxean dituzten errezetekin zer egin, tratamendu guztia dagoen...", horrelako galderak ohikoak direla aipatu digu botikari batek.

Sistema berria, baina, proba fase luze baten ostean ezuste guztiak aurreikusteko gai da. "Tratamendu luze batean, adibidez, botika guztiak eroan beharrean, sistemak berak kalkulatzen du noiz jaso behar den botika", dio Juan Antonio Irizar botikariak. Hark sistema berriari abantailak baino ez dizkio ikusten: "Errezeta elektronikoak anbulatorioak arintzen ere lagunduko du.

**Abantailak guztiontzat**

Bezeroek errezetak erabili beharrean txartela erabilita, botikariek ere tramite gutxiago egin beharko dituzte.

Sistema hobetze fasean dagoenez oraindik, medikuen, bezeroen eta botikarien iradokizunekin hobekuntzak egiten ari dira.

Sistema ez kolapsatzeko, azaro eta abendu bitartean hiribururetako botiketara ere iritsiko da errezeta elektronikoa.



**JUAN ANTONIO IRIZAR**
BOTIKARIA

"Errezeta elektronikoarekin, bezeroak medikua eta botika sistema beraren parte direla argiago ikusten du".



**SORAYA IGLESIAS**
BEZEROA

"Oso neurri ona iruditzen zait, horrenbeste paper ezberdin erabili beharrean txartel bakarrean guztia ageri da"



**ASUN IBARRONDO**
BEZEROA

"Gaixo kronikoen kasuan abantaila ugari ditu, erizainarengana jo beharrean, txartelean urte osoko tratamendua ageri delako".



**TAMARA IRIZAR**
BOTIKARIA

"Bezeroak sistema berria oso bizkor onartu du; eurentzako erosoagoa izateaz gain, guretzako ere abantaila ugari ditu".

# "Iktusaren inguruan ezjakintasun handia dago"

Adituen ustez, prebentzioa eta bizkortasuna iktusa gainditzeko funtsezko faktoreak dira

**I.G.** | ARRASATE

Gaitz ezezaguna den arren, sei segundoan behin pertsona bat iktusak jota hiltzen da eta mundu mailan sei pertsonatik batek iktusa izango du. Gaitz hori azaleratu eta haren eraginak nahiz prebentzioa zabaltzeko, Iktusaren Nazioarteko Eguna izango da martitzenean.

Aita Menniko garuneko gaitz unitateko koordinatzaile Olatz Uriartek azaldu duenez, "burmuinera odola daraman arteria bat oztopatzean gertatzen da iktusa". Izan ere, odola ez da eremu batera heltzen eta kaltetuta geratzen da.

**Prebentzioa eta bizkortasuna**

Zenbat eta denbora luzeagoan egon zirkulazio gabe, kaltea orduan eta handiagoa da, eta sendatzeko zailagoa ere bai; batzuetan, atzera bueltarik ez duena. Bada, iktusa gertatu ondorengo uneak premiazkoak dira.

Hori dela eta, dieta osasuntsua egiteak eta egunero 30 minutuz kirola egiteak gaixotasuna ez garatzen laguntzen dute. Bestalde, arteria hipertentsioa, diabetesa, kolesterola eta tabakismoa izaten dira ohiko arrisku faktoreak.

Aita Mennik Azoka kalean duen Eguneko Zentroan, erizain eta sendagile batek aldez aurretik 943 79 44 11 telefonoan hitzordua lotzen duen edonori balorazioa egingo diote, doan. 18:30ean, aldiz, *Kulturaten Iktusa, zer egin aurretik eta ostean?* hitzaldia egingo dute.

# Elkarretaratzeak Arrasaten eta Bergaran osasun arloko murrizketen kontra

**I.G.** | ARRASATE

ELA sindikatuak mobilizazio astea du honako hau, eta horren harira, martitzenean bi elkarretaratze egin zituzten Debagoienean. Bata Arrasaten, Debagoieneko Eskualde Ospitalean eta bestea Bergarako anbulatorioan.

Elkarretaratzeekin administrazio publikoan, eta zehatzago esateko osasungintza arloan egon diren murrizketak eta lan baldintza aldaketak salatu gura izan dituzte.

ELAk sektore ezberdinetan antolatu ditu mobilizazioak aste honetan zehar, eta sindikatutik adierazi dutenez, asmoa da lan hitzarmenik gabe geratu diren langileei, antolatuz, baldintzak hobetzen saiatzea.

**Arantza Tapia** | Garapen Ekonomikoko eta Lehiakortasuneko sailburua

# "Guk malgutasunez jokatuko dugu, guztion malgutasun partekatua behar du Fagorrek"

- Elkarlanean sinesten du eta Fagor zulotik aterako bada, ezin dela bakarrik utzi uste du
- Aurre-lehiaketan laguntza eskatzen badu Eusko Jaurlaritza ondoan izango duela dio

**IURE EIZAGIRRE** | ARRASATE

Ingeniari industriala ikasketaz, ibilbide luzea egin du Arantza Tapiak (Astigarraga, 1963) politika munduan. Fagor Etxetresnak aurre-lehiaketan sartu izanaz egin digu berba.

**Fagor Etxetresnen kasuan, irtenbide errealik badago?**

Fagor Taldeak eta Mondragon Korporazioak hartutako erabakia kontuan izanda, Fagor Etxetresnen egungo estruktura dagoen moduan, ez da bideragarria.

Bideragarritasunaren eszenatokian jarriz gero, irteera plan zorrotz baten bitartez, Fagorren jardueraren zati batek izango luke irtenbidea, eta zati edo atal hori balio erantsi handiena duen jarduerarena izango litzateke.

**Euskal Herriko ekonomian zenbaterainoko eragina izan dezake honek? Eusko Jaurlaritzatik hori baloratu da?**

Mondragon Korporazioak Euskadiko Barne Produktu Gordinari ia %7ko ekarpena egiten dio; hortaz, Fagor bezalako enpresa batean gertatzen ari dena oso kontuan hartzen dugu. Kalte zuzenak handiak izan daitezke, eta Fagorren azken erabakia ezagutzean aztertu ahal izango dugu industria-osagarri eta hornitzaileengan eragin dezakeena.

**Zenbaitek itxaropen hitzak izan dituzte Fagorren harira. Zeu ere hain itxaropentsu zaude?**

Ez dut itxaropentsu jarrera aldarrikatzen, errealista jarrera baizik. Hau da, sakon aztertu behar da, irtenbide txikiena izanda ere, zein den, baliabidearen arabera manten daitekeen jarduera eta ahalik eta lanpostu gehien mantentzeko ahalegina egin.

**Erkorekak urteko albisterik txarrena dela adierazi du. Irakurketa bera egiten duzu?**

Euskal enpresa eta ekonomiaren ikuspuntutik hala esan daiteke. Espero zitekeen albisterik txarrena izan da, honek guztiak milaka familiarengan eragin zuzena duelako eta duen dimentsioagatik euskal gizartea ere zeharka mintzen duelako.

**Egibarrek esana da Fagor Etxetresnek ez zituztela eraginkortasunez erabili Eusko Jaurlaritzaren laguntzak eta hornitzaileei ordaintzeko erabili zituztela bideragarritasun planean ordez. Nolabaiteko jarraipena egin al zaie laguntza horiei?**

Jaurlaritzak eskura dituen finantzazio tresna ezberdinak bideratu ditu Fagor Taldearen bideragarritasuna laguntzeko, euskal enpresa askoren kasuan egin duen moduan. Erabili ditugun finantzazio tresnak oso landuta eta kontrastatuta ditugu, eta edonork daki zuzkidura horiek errazteko guztiz justifikatuta egon behar dutela.

Fagor Taldeari zuzendu zaizkion laguntzek bi helburu izan dituzte: bata, Berrikuntza eta Garapen programak gauzatzea; eta bigarrena, kopuru garrantzitsuena, Fagorrek aurkeztutako bideragarritasun planari bultzada ematea. Bi kasuotan, arrazoituta eta behar bezala kontrastatuta jokatu da, baina uste dugu arazoaren dimentsioak, merkatuen exijentziak eta epeen abiadurak ez dutela bideragarritasun planak aurreikusten zituen urratsak eta helburuak ahalbidetu. Enpresa guztiz "nekatuta" iritsi da soluzio bila eta ezinezkoa egin zaie plana aurrera eramatea.

**Oraingoz, zein da helburua, hartzekodunen lehiaketa ekiditea?**

Eusko Jaurlaritzaren helburua ahal den jarduera zatirik handiena eta ahalik eta lanpostu gehien mantentzea da, baina, betiere, plan zorrotz batekin, egungo errealitate gordinari erantzuteko gai izango denarekin.

**Prentsara bidalitako oharrak dioenez, Eusko Jaurlaritza Fagor Etxetresnak bideragarri egiteko eszenatokian ari da lanean. Zertan ari zarete, zehazki?**

Argi utzi nahi dut, orain arte egin den moduan, azken erabakia beti enpresaren esku dagoela, baina uste dugu aipatutako baldintzetan, hau da, plan zorrotz baten barruan, jardueraren zati baten alde egin behar dela, zati txikienaren alde bada ere. Guk ez ditugu ateak itxi. Hartzekodun garen aldetik malgutasunez jokatuko dugu eta hartzekodun guztien malgutasun partekatua lortuz gero, prest gaude irteerara bidean eskutik joateko. Fagor Taldea zulotik ateratzea nahi badugu, argi dago ezin dugula bakarrik utzi. Laguntza partekatua behar du.

**"Sakon aztertu behar da, irtenbide txikiena izanda ere, zein den"**

**"Erabili ditugun finantzazio tresnak kontrastatuta eta oso landuta ditugu"**



Arantza Tapia, Goienara egindako bisita batean. | GOIENA

**Aurre-lehiaketarekin lau hilabeteko negoziazio prozesua jartzen da martxan. Eusko Jaurlaritzak nolabait parte hartzeko asmoa du?**

Enpresak prozesu honetan lanerako deitzen gaituen bakoitzean, aldamenean izango gaitu, hala egin baitugu orain arte Fagorren eta gainerako kasuetan ere.

**Martin Garitanok esan du maila ezberdinetako erakundeak elkarlanean hasiko direla, tartean Eusko Jaurlaritza. Nola garatuko da?**

Aspaldi dabil Eusko Jaurlaritza erakunde arteko lankidetzan murgilduta. Horrelako egoera konplikatu baten aurrean etxeko lanak aurretik eginda ekarri behar dira, egia bada ere azken asteetan erakundeen arteko lankidetza areagotu egin dela. Egoera zailetan erakundeen inplikazioa indartzea ezinbestekoa da eta horretan gabiltza; horretan dugu burua egunaren 24 orduetan.

**Debagoieneko garapen agentzien bitartez bailarako errealitatearen inguruko diagnostikoa egin nahi duela ere adierazi du. Jaurlaritzak horretan parte hartuko du?**

Lehen aipatu dudan moduan, azken erabakiaren *argazkia* zein den ikusi arte hipotesi ezberdinak izan daitezke eta aurretik bideragarritasunaren eszenatokian ari gara lanean, horrek dituen zailtasunez jabetuta. Erakundeen arteko lankidetzan beti aritu gara eta segituko dugu, baita diagnosiak eta irtenbideak bilatzeko lankidetzan ere, noski.

**"Plan zorrotz baten barruan, jardueraren zati baten alde egin behar da"**

**"Egoera zailetan ezinbestekoa da erakundeen inplikazioa gehitzea**

**Hemengo ekonomiarekin lotura zuzena duten erakundeez gain, inguruan izan dezakeen eragina kontuan izanda, zeharkakoen elkarlana aurreikusten duzue?**

Noski. Euskal enpresen kasu ezberdinetan erakunde guztiekin aritzen gara lanean, Spri, aldundiak, ministerioak, finantza erakundeak eta bestelakoak. Fagorren kasuan ere bai.

**Egoera ikusita, kooperatiben inguruko hausnarketa egiteko unea dela uste duzu?**

Jasaten ari garen krisi latzean, nork ez du hausnarketarik egin? Pentsatu nahi dut, enpresa mailan, egitura juridiko ezberdinetako enpresa guztiek egin dutela hausnarketa minimoa. Kooperatiben ereduari dagokionez ere bai, uste dut, gainontzeko enpresa guztietan bezala, egungo egoerara egoki moldatzeko barne errebisioa egiteko garaia iritsi zela edota dela. Nire ustez, krisiak eta Fagorren gertatutakoak ez du kooperatiben eredua zalantzan jartzen, baizik eta kudeaketaren errebisioaren beharra erakutsi du. Euskadin, Mondragon Korporazioan, badira kudeaketa bikaina egin eta lehiakor dabiltzan kooperatiba asko; beraz, ez diogu ereduari mesfidantzaz begiratu behar, kontrakoa esango nuke. Kudeaketaren hainbat alderdi dira errebisatu beharrekoak eta Jaurlaritza buru-belarri ari da kudeaketaren berrikuntza hausnartzen eta sustatzen.

**Mondragon Korporazioak zuzenean inplikatu beharko lukeela ere adierazi du Eusko Jaurlaritzak.**

Bai, noski, zalantzarik gabe. Horrek ez du esan nahi orain arte egin ez duenik. Jakin badakigu Mondragon Korporazioko enpresek eta langileek jarrera eredugarria izan dutela azken urte hauetan, goraipatzekoa esango nuke. Gertatzen da Fagorrek bizi duen une konkretuari behar bezala erantzuteko taldearen laguntza behar duela.

**Zein mezu zabalduko zenuke debagoiendarren artean?**

Mondragon Taldeak ibilbide handia du elkartasun eta enpresa arteko estrategietan. Debagoiendarrei lotuta doazen ezaugarriak dira, eta beraien sena ehuneko ehunean ikusi nahi dugu egoera honi erantzunik onena eman ahal izateko.

ZABALIK



JUAN LUIS AZKARATE
http://goiena.net/iritzia/

# Mundua, zein txikia

Palentzia aldean ibili naiz asteburuan, Curavacas mendi inguruan. Ikusgarria zelako paradisuak aurki daitezke etxetik gertu. Oso jende gutxi bizi denez eta kilometroak soberan dituztenez, otsoa eta hartza eroso asko ibiltzen dira eremu natural pribilegiatu hauetan. Bi hanketako piztioi ere oso abegi adiskidetsua eskaintzen digutenez, paisaje eta paisanajea, biak ala biak gozagarri.

Ostatu hartu eta berehala 20 biztanleko herrixkan dauden bi tabernetatik zaharrenera jo genuen bertako girotxoan integratze aldera. Nongotarrak ginen esatea nahikoa izan zen ohartzeko hango bailara sakonetara ere heldu direla Fagor Etxetresnen egoera kaskarraren oihartzunak eta jendeak oso penatuta eta harriduraz hartu duela albistea, Euskal Herritik kanpo ere bai. Eta gezurra badirudi ere, Ulgorreko aferaz gu baino jantziago zegoen morroirik ere aurkitu genuen, barraren bestaldean.

**"Bizimodua goitik behera aldatzea zilegi dela ere erakutsi zigun"**

"Fagor ez da eroriko, horretaz zalantzarik ez izan, eta jakin badakit zertaz ari naizen. Erabateko esanahia daukan kooperatiba izanik, ez dute erortzen utziko", adierazi zigun irmoki. Gu, zur eta lur. CESIDekoa ote, horrelako primiziak bote prontoan botatzeko? "Zenbateko zorra du? Mila milioi, ezta? Hori huskeria da… Zenbat kostatu zen Bankiaren erreskatea? Atera kontuak… Politikak du azken hitza".

Ekonomia, politika, nor baino nor gehiago, zein noren menpe? Zer pentsa eman zigun bere hitz jarioak. Espainiako Kooperatiben Elkartean lanean ibilia zen gure tabernaria, aspaldian Solchagarekin eta beste ministro batzuekin goi politikako harremanetan jardun izandakoa. Eta orain taberna umil baten barraren babespean, nahiz eta agroturismoaren negozioan ere burubelarri sartua. Bizimodua goitik behera aldatzea, are gehiago sasoi ilun hauetan, zilegi dela ere erakutsi zigun.

Bere baikortasunak itxaropenerako argi izpi bat zabaldu zigun. Zoritxarra honakoa ere iturri estraofizialetik etorri izana.

USTEAK USTE

GOIATZ ARANA | goarana@goiena.com

# Ze giro dago Arrasaten?

Hori da joan den asteaz geroztik galdetzen didatena; herriko jendeak, Ormaiztegikoak, galdetu dit. Amak, ahizpek, ezagunek… guztiek jaso dute Fagor Etxetresnetan gertatu denaren berri, komunikabideen bitartez, eta bueltaka-bueltaka darabilte gaia, hainbat arrazoirengatik: inguru hartako jendea ere etortzen zelako bertara lanera, Caja Laboralen lan egindako aita zuenaren semeak gogoan duelako nola hark ezagutzen zituen Alfonso Gorroñogoitia edota Jose Maria Ormaetxea, kooperatibismoaren sorburu izan zirelako Fagor Etxetresnak, ia 2.000 langile geratu direlako langabezian… Ez da gutxiagorako. Barikuan, manifestazioak oilo-ipurdia eragin zuela esatea eta sentitzea, biak bat izan ziren.

MARRAZKIZ

UNAI BUSTURIA | http://goiena.net/iritzia/




GUTUNAK

# 'Igeldo vs Bergara'-ri erantzuna

**Iban Martinez**
Bergara

Orain gutxi GOIENAn irakurri dudan idatzi batez nire iritzia eman nahiko nuke.

Artikuluan nabaritzen da bere jarrera apolitikoa eta inongo interes partidistatan oinarrituta dagoela.

Igeldon egingo den herri galdeketa eta Bergara Garbia taldearen herri galdeketa konparatzen ditu. Bilduren jarrera bata eta bestean.

Nire iritzi ez partidistan ere, esan nahiko nukeena da Igeldoko desanexio nahia aspaldiko kontua dela. Hamarkadak dira Igeldoren eta Donostiaren arteko arazo hau dagoela eta irtenbide "zuzenena" eman nahi zaio.

Egia da aspaldi honetan Bergaran atez atekoaren inguruan eztabaida handia suertatu dela. Herri talde batek oposizio handia erakutsi dio zaborra era selektibo eta efizientean martxan jarri den proiektu berritzaile honi.

Nik dakidala, eta emaitzak babesten nauen bezala, 5. edukiontziarekin zaborra selektiboki gehienez %30 batzen da eta atez atekoarekin, berriz, %80tik gora.

Zuk 5. edukiontzia babesten duzu.

Zergatik eta zertarako?

Orain arte bezala, komodidadearen izenean zaborra poltsan sartu eta Zubietara erretzera eraman dezaten?

Beste aldera begiratu eta listo?

Bene-benetan 5. edukiontziaren erabiltzaile bihurtuko zara?

Zergatik ez da iristen tasa altuetara 5. edukiontziarekin?

Guztion esku dago erabiltzea, baina guztiok ez dugu erabiltzen.

Onargarria al da herri batzuetan zaborraren %80 batzea eta beste batzuetan %26?

Onartuko al zenuke bien arteko diferentzian sortzen den zaborra Zubietan ordez zure herrian erreko balitz?

Bergarako 4.700 herritar horiek euren herrian errauskailu bat nahiko al lukete?

Aintzane, nahikoa da bazterrak nahasteari itxuraz era ez partidistan. Utzi alde batera zuk ordezkatzen duzun alderdi politikoak dituen megaproiektu txikitzaileak babestea (inora joango ez den AHT, Zubieta, Pasaiako portua, Etorlur, Supersur…) eta guztiontzat hobeak izango diren bideak jorratzen hasi zaitez. Herritarrek euren burua politikariengandik geroz eta urrunago ez sentitzeko.

Animo, atez atekoaren alde lanean ari zareten guztioi.

Merezi duelako, eutsi gogor.

## ZUZENKETA

Aurreko astean, Goienaren hedabideetan Fagor Etxetresnen erabakiaren berri ematerakoan, Lanki ikertegiko kide moduan aurkeztu genuen Ainhoa Larrañaga.

Bada, hori ez da zuzena. Izan ere, Mondragon Unibertsitateko irakasle eta ikertzailea da Ainhoa Larrañaga.

**Karaktereak, gehienez: 1.900 (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
**Gutunak ezin izango dira kapituluka bidali. Gutun edo iritzi-zutabe bati ezin izango dio pertsona berak kapituluka erantzun; gutun bakarrarekin erantzun beharko dio.**
Gutunarekin batera bidali beharrekoak: egilearen izena-abizenak, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena" KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Aitor Izagirre
**Zuzendari nagusia** Iban Arantzabal

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo
**Argazkilaria** Imanol Soriano
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA**
**ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA**
**ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia · Arrasateko Udala · Bergarako Udala · Oñatiko Udala · Aretxabaletako Udala · Eskoriatzako Udala · Antzuolako Udala · Aramaioko Udala · Elgetako Udala · Leintz Gatzagako Udala

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

**Eusko Jaurlaritzak diruz lagundutako aldizkaria**

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

## DUELA 10 URTE

2003-10-13

### Karlos Agirreurreta 'Mahoma' hil zen

Karlos Agirreurreta RIPeko abeslariaren bat-bateko heriotzaren albisteak ilundu zuen duela hamar urteko aste hura. Bilbon bizi zeneko etxean aurkitu zuten *Mahoma*-ren gorpua; 44 urte zituen.

Euskal Herri osoan, baina bereziki jaioterrian, Arrasaten, samin handia sortu zuen albiste hark. Agur esan zigun belaunaldi askorendako punkaren ikurrak, baina, batez ere, lagun on batek.



*Mahoma*, RIPen kontzertu batean. | IKOR KOTX

2003-10-17

### Arizmendi Ikastola, kooperatiba

Arizmendi Ikastolak kooperatiba bakar moduan eman zion hasiera 2003-2004 ikasturteari.

Sei urte lehenago, Hezibide barruan, Almen, San Frantzisko Xabier, San Viator eta Umezaintza ikastetxeek egin zuten lehen urratsa ikastola bakar bihurtzeko. Bateratze hari esker, Euskal Herriko ikastolarik handiena bilakatu zen Arizmendi, 3.000 ikaslerekin.

## DUELA 5 URTE

2008-10-17

### GOITBren garai berria

Denboraldi berria aurkeztu zuen GOITBk duela bost urte. Zuzenean emitituko zen *Goiena magazinea* berrikuntza aipagarri moduan sustatu zuen GOITBk. Horrez gain, inbertsio ekonomiko garrantzitsua egin zuen etxe honetako telebistak: 262.000 euro inbertitu zituen material, programazio eta azpiegitura berrietan.

## HERRITARRAK

LEINTZ GATZAGA

**Garazi Orobengoa** Leintz gatzagar petoa dela esan genezake: herrian hazi eta hezitakoa da, eta bertako ekimen eta saltsa gehienetan parte hartzen duelako ezagutzen dute gehienek | ANDER LARRAÑAGA

# "Oso berezia da haur baten garapena ikustea eta prozesuan parte hartzea"

Garazi Orobengoa (1990), edo askok ezagutzen duten moduan *Jerba,* izaera gatzagarra zainetan harrotasunez daraman horietakoa da. Irakasle ikasketak egiten ditu Huhezi fakultatean eta lehenagotik Haur Hezkuntzako zikloa egin zuen Bergarako Mariaren Lagundia zentroan. Herria maite du 23 urteko gatzagar honek, eta, horregatik, ludotekan, Sorginak Emakume Elkartean eta Txosna batzordean parte hartzen du: saltsa guztietako perrexila da.

**Nola definituko zenuke Leintz Gatzagaren izaera herri moduan?**

Oso herri txikia da Leintz Gatzaga eta bertako biztanleok oso elkartuta gaude. Harreman handia dugu gure artean, baita Udalarekin ere. Giro polita izan ohi dugu, bai helduok, baita haurrek ere: adin askotariko herritarrak elkartzen gara, eta hori, guztiondako, aberasgarria dela iruditzen zait.

**Zein da Leintz Gatzagako egutegian urteko egunik maitatuena, zure ustez?**

Abenduaren 24a dut nik gustukoen. Baserriz baserri joaten gara urtero kantuan eta gero herrira jaisten gara gauza bera egiteko. Ohitura polita da, haur zein helduok hartzen dugulako parte: oso egun herrikoia eta elkarlanean igarotzekoa da eta halako ohiturak herri gutxitan mantentzen direla bistakoa da.

**Haurrak aipatu dituzu lehen. Hezkuntzan lan egiteko egin dituzu ikasketak, ezta?**

Bai, hala da; txikitatik nahi izan dut hezkuntzan lan egin. Oso berezia iruditzen zait haur baten garapena aurrera nola doan ikustea eta prozesu horretan parte hartzea. Miresgarria iruditzen zait egun txar bat nola aldatzen den haur baten kontu batekin edo irribarre xume batekin.



Garazi Orobengoa, Leintz Gatzagako iturrian. | ANDER LARRAÑAGA

> **"Gero eta argiago daukat nire etorkizuna haur artean dagoela"**

> **"Autoa da ezinbestekoena gazte gatzagar baten egunerokoan"**

Geroago eta argiago daukat nire etorkizun profesionala haur artean dagoela.

**Hezkuntzaren gaiarekin jarraituz, ludotekako begirale zarela jakinda, nolakoak dira, edo izan zarete, Leintz Gatzagako haurrak?**

Oso irekiak dira eta gutxirekin konformatzen direla uste dut. Naturarekin oso harreman estua dute haur gatzagarrek eta egunerokotasuneko detaile txikienak ere baloratzen dituzte.

Azken finean, ludotekan zein kalean, adin askotariko haurrak elkartzen dira, ludotekan, behintzat, 2 eta 12 urte bitarteko haurrak etortzen direlako, eta elkarrengandik asko ikasten dutela uste dut, betiere laguntasunez.

Edozelan ere, nik uste dut asko aldatu direla gauzak: nik uste dut lehen, haur nintzenean ludotekan ibilitakoa naizelako, aukera edo ekintza gehiago genituela egiteko. Orain ere badituzte aukerak, baina nik, behintzat, desberdin ikusten dut.

**Zure seme-alabak Leintz Gatzagan heztea eta haztea gustatuko litzaizuke?**

Duda barik. Ni ere hemen hezi naiz eta beste herri batzuekin konparatuta izugarrizko askatasuna dugula uste dut. Umeak kalean lasai ibiltzen dira eta beste haurrekin oso harreman estua egiten dute; hori oso alderdi positiboa dela iruditzen zait.

**Herri ekimenetan ibiltzea gustuko duzula jakina da; izan ere, Sorginak elkarteko kide zara eta jaietan, txosnak eta kontzertuak antolatzen ibiltzen zara. Garrantzitsua da inplikazioa azaltzea, are gehiago Leintz Gatzaga moduko herri txiki bat izanda?**

Nik baietz diot. Leintz Gatzaga herri txikia da, eta, azken batean, denon laguntzarekin horrelako ekimenak aurrera atera behar dira. Jaietako egun horiek, esate baterako, denok apur bat lagunduta, samurragoa da aurrera ateratzea.

*Sorginek,* adibidez, San Milixan azokan taloak egiten dituzte, eta, horrez gainera, herriko beste alor askotan ere parte hartzen dute. Ezinbestekoa da halako taldeak egotea herrian eta guztiok parte hartzea.

**Zer behar du gazte gatzagar batek bere egunerokoan?**

Autoa da ezinbestekoena, duda barik. Badaukagu garraio zerbitzua, baina oso ordutegi mugatuak daude eta batzuek ordutegi zehatz bat dugu klasera edo lanera joateko.

Horretaz gainera, erosketak egitera edo medikuarengana joan behar badugu, arazo bera dugu. Gazteok, parrandara goazenean, autoan joaten gara; baditugu pare bat autobus zapatu gauean, baina ez digu autonomia puntu hori ematen.

## NIRE HERRIAN

**:) HERRIA BERA ETA GIROA**

Leintz Gatzagatik zer gustatzen zaidan gehien? Herria, oso-osorik. Izan ere, beti erantzuten dut hori. Oso polita eta lasaia dela iruditzen zait, bizi izateko leku aproposena da, nire ustez. Gainera, guztiok ezagutzen dugu elkar eta badakigu kalera irteten garenean norbaitekin elkartuko garela beti.

**:( AZKENALDIKO GIROA**

Betidanik gustatu izan zait herrian egon den giroa, baina azken urteetan aldatu egin dela onartu beharra dago. Zerbait aldatu beharko banuke, horixe izango litzateke, herriko giroa, alegia. Ez dut esan nahi giro txarra dagoenik, oso ona dago, baina, hala ere, nik nahiago dut lehen izaten genuen giro herrikoiagoa.

# Goiena Klubeko urriko zozketak

**Goiena Klubeko bazkideok irabaz ditzakezuen sariak hauek dira. Hartu parte!**




www.harremandenda.org

**Otarrak**
**HARREMAN DENDAri esker bidezko merkataritzako produktuez osaturiko 2 otar zozketatuko ditugu.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Harreman



## Realeko ekipamendua

**Etxeko txikiarentzat Realeko ekipamendua.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Reala

LORAMENDI INTERSPORT




ARRIKRUTZ oñatiko kobak

**Sarrerak**
**Arrikrutz kobak bisitatzeko, 6 sarrera zozketatuko ditugu.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Arrikrutz



Debagoieneko BASERRI SAREA

**Otarrak**
**DEBAGOIENEKO BASERRI SAREAri esker baserriko produktuez osaturiko 4 otar.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Baserrisarea




PAMIELA

**Liburuak**
***Nola sentitzen zara?*, *Matiasen ametsa*, *Hartza ehizatzera* goaz umeentzako hiru liburu sorta**
Parte hartzeko sariaren izena:
Liburu sorta




PAMIELA

**DVD-Liburua**
Bernardo Atxaga eta Jabier Muguruzaren *Paradisua eta katuak* errezitaldiaren hiru DVD-liburu.
Parte hartzeko sariaren izena:
Paradisua eta katuak




**3 DVD**
**Azken Egunak Gurian.**
**Aitor Arregiren dokumentala.**
Parte hartzeko sariaren izena:
Guria

**PARTE HARTZEKO:**
**SMS:** KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira
**Telefonoz:** 943 25 05 05
**E-postaz:** kluba@goiena.com
**WhatsApp:** KLUBA sariaren izena [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.
Parte-hartzaileen artean egingo da zozketa.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko. Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Taldearen fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

goienakluba
Euskara irabazle, denok irabazle!

# HERRIAK

ANTZUOLA

# 29 urte senidetuta

- Antzuolarrak eta aihertarrak domekan elkartuko dira Antzuolan, egun osoko festarekin
- Besteak beste, Bergarako erdigunera bisita gidatua egingo dute eguerdian

MIREIA BIKUÑA | ANTZUOLA

Dodomeka, izango da Antzuolako eta Aiherrako (Nafarroa Beherea) bizilagunak anai-arreba moduan batzeko eguna. Senidetzearen 29. urteurrena ospatuko dute Antzuolan. Aurten, antzuolarrek hartuko dituzte aihertarrak. Aurtengo ospakizunak Debagoienean egingo dituzte. Bi urtean behin elkartzen dira Antzuolan.

Berrikuntza berezi barik, egitarau xumea antolatu dute antzuolarrek (ikus beheko taula): herritarrek eta Udalak. Izan ere, antzuolarren eta aihertarren arteko senidetzea izan da, baina Antzuolako Udalak hasieratik babestu zuen egitasmoa.



Antzuola–Aiherra senidetzearen azken ospakizuneko irudia; bazkaritan. | GOIENA

**Bergarako erdigunea**

Hamaiketakoa egingo dute elkarrekin ospakizunak hasteko, eta jarraian Bergara aldera joango dira. Hango erdigunean bisita gidatua egingo dute. "Antzuolako zirrikitu guztiak ezagutzen dituzte, eta duela bi urte pentsatu genuen Debagoiena erakusten hastea. 2011n Arrikrutzen egon ginen eta aurten Bergarara joango gara. Iparraldea eta Hegoaldea oso bestelakoak dira, eta gure ingurunea ezagutzeko aukera eman gura diegu", esan digu Jone Larrañagak, Kultura teknikariak.

Bisitaren ondoren mahaiaren bueltan elkartuko dira 100 bat lagun, menu gozoa dastatzeko. Eta ondoren erromeria egingo dute. "Bazkaritara joango direnendako eta gainerako herritarrendako", dio Larrañagak.

Izan ere, Iparraldean abesteko ohitura handia dute. Oso abeslariak dira. Oiartzungo Ezten Giro taldeak alaituko du bazkalostea eta kantuan egiteko aukera egongo da.

**Udalen babesa**

Antzuolako herritar talde batek dauka senidetze eguneko ospakizunak antolatzeko ardura. Aiherran Beltzuntze elkartea da antolatzailea.

Antzuolako Udalak hasieratik egin zuen bat senidetze egitasmoarekin. Bada, Aiherrako Udala 20. urteurrenean elkartu zen proiektura. Erakundeen arteko hartu-emana ona da. Dena den, antolatzaileek azpimarratu gura dute bi herrietako bizilagunen arteko senidetzea dela, eta eurak direla protagonistak. "Urtero egiten dugu deialdia pertsona berriak erakartzeko, batez ere gazteak, gurasoak eta haien seme-alabak. Halako proiektuak oso aberasgarriak dira. Guztiok bizi gara Euskal Herrian. Tamainaz antzerako herriak gara, baina Aiherran eta hemen hizkuntza eta bizimodu ezberdinak ditugu, besteak beste", dio Jone Larrañaga teknikariak.

Herriko neska-mutikoek txikitatik Aiherra non dagoen ezagut dezaten, azken hiru urteetan elkartrukea egiten dute hango ikasleekin. "Antzuolako eskolak parte-hartze zuzena dauka. Lan handia egiten dute. Iaz, gure ikasleak Aiherran egon ziren, eta hango ikasleek ikasturte bukaerako irteera gurera egin zuten", dio.

Umeen bidez euren gurasoak eta etxekoak erakartzea da asmoa. "Ideia berriak eta freskoak" behar dituzte.

**Kasualitate hutsa**

Antzuolarren eta aihertarren arteko hartu-emana kasualitate hutsa izan zen. Andre eta Aña Mari Martiñon, Hegoaldea ezagutzeko asmoz, Antzuolaraino heldu ziren, eta han ezagutu zituzten Juan Antonio Iturbe eta Inma Beristain, egungo alkatea. Harritu egin ziren elkarren artean euskaraz berba egiteko gai zirela ikusita. Ondoren ezagutu zuten Gervasio Legorburu.

Orduan landatu zuten gaurdaino heldu den senidetzearen hazia. Hazi hori handitzen joan da, eta etorkizuneko hazia izatea gura dute. Horretarako lanean jarraituko dute Antzuolako bizilagunek eta Beltzuntze elkarteak Aiherran.

**ESANAK**

**"Aiherrako ikasleek Antzuolara egiten dute ikasturteko bukaerako irteera"**

JONE LARRAÑAGA | KULTURA TEKNIKARIA

**DATUA**

**100**

BAT LAGUN

Horiek dira domekako bazkarian elkartuko diren pertsonak.

**DOMEKAN, JAIA ANTZUOLAN**

**11:00** Aihertarrak Antzuolara helduko dira. Ondoren, hamaiketakoa egingo dute elkarrekin.

**11:30** Bisita gidatua Bergarako erdigunera.

**14:30** Bazkaria egingo dute Herriko Plazan. Menua izango da entsalada, arrain-paella eta flana.

**16:30-20:30** Dantzaldia egingo du Ezten Giro taldeak.



Aiherra herria Nafarroa Beherean dago. | GOIENA

## Debagoienetik 140 kilometrora

Aiherra Nafarroa Beherean dago; hain justu ere, Lapurdirekin mugan. 2.765 hektarea hartzen ditu, eta 970 biztanle. 1450. urtean sortutako herria da. Bere ekonomiaren oinarria nekazaritza da. Hizkuntza aldetik, aihertar gehienek dakite euskaraz, eta ikasketak euskara hutsean egiten duten umeek Hazparneko ikastolan ikasten dute.

Paraje ederrak ditu, eta Beltzuntzeko gaztelua, Abarratea mendiko gotorlekuak eta Done Petri parrokia dira hango ikur nagusiak.

# Ekozenterrean lan egiteko ikastaroa antolatu du Udalak

Emausek kudeatuko du Asam pabiloian egongo den zentroa; 2014ko hasieran martxan egongo da

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Udala berrerabilpenaren kultura indartu guran dabil. Izan ere, berrerabiltzearen filosofia, ingurumenaren zaintzaz haratago, ekonomia eta enplegua bultzatzeko aukera moduan ikusten dute. Horren adibide da, besteak beste, Emaus Fundazioarekin elkarlanean Gipuzkoako hirugarren Ekozenterra Arrasaten irekiko dutela: "Berrerabilpenaren jarrera hori bultzatzeko, gizarteratzeko prozesuak indartzeko eta zentzu horretan lanpostuak sortzeko baliabide garrantzitsu bat delako egin dugu Ekozenterra Arrasaten ezartzeko apustua", adierazi zuen Inazio Azkarragaurizar alkateak asteon egindako agerraldian.

Ekozenterra 2014ko lehen hiruhilekoan martxan egotea espero dute: "Planteatzen duguna da kudeaketarako, bilketarako, tratamendurako eta aprobetxamendurako sistema bat jartzea, tamaina handiko ehungintzari dagokionez. Berrerabilpena lehenetsiko da sistema horretan, hau da, oraindik erabilgarriak diren produktuen bizitza luzatuko dugu, beste modu batera zabortegian amaituko zuten-eta", esan zuen Javier Pradini Emaus Fundazioko zuzendariak.

**DATUA**

**400.000**

EURO JARRI DITU DIPUTAZIOAK

Gipuzkoako Diputazioak 400.000 euro jarri ditu Ekozenterrerako eta Udalak "alokairu sinbolikoa" jarriko die Emaus Fundaziokoei.

### 70etik 12 aukeratuko dituzte

Ekozenterrean lan egingo dutenendako ikastaroa antolatu du Udalak, eta hondakinen bilketa eta tratamenduaren gaineko ereduak ezagutuko dituzte, besteak beste. Gizarteratze prozesuan daudenei dago zuzenduta: "Bazterkeria arriskuan dauden pertsonei aukera egoki bat eman gura diegu euren egoera zail horretatik irteten laguntzeko", adierazi zuen Marga Garmendiak, Udaleko Enplegu eta Garapen Ekonomikorako teknikariak. 70 lagunek eman dute izena, langabeak guztiak, eta horietatik 12 aukeratuko dituzte. 80 ordukoa izango da; urriaren 28an hasi eta abenduaren 4an amaituko da.

# 'Herria ezagutzen' bilduma osatu dute

J.D. / J.B. | ARRASATE

Arrasateko historia ezagutzera emateko eta herriko kultura txikitatik lantzen joateko *Herria ezagutzen* ekimenaren barruan, azken unitate didaktiko sorta aurkeztu dute asteon. 2010a ezkero proiektuan elkarlanean dabiltza Udaleko Hezkuntza Saila, herriko ikastetxeak eta *Hik hasi* aldizkaria, eta aurten amaitu dute Lehen Hezkuntzako ikasleei bideratutako liburuxka sorta. Oreretako *Hik hasi* aldizkariko Jose Mari Auzmendi ibili izan da urteotan aholkulari lanetan.



Barberan, Larrañaga eta Auzmendi martitzeneko aurkezpenean. | JAGOBA DOMINGO

Bilduma ikastetxeetan banatu dute dagoeneko; Lehen Hezkuntzako maila bakoitzari liburu bat dagokio, eta unitate bakoitzean herriko historiaren zati bat aztertzen da. Historiaurretik hasi eta industrializazioa arte. Unitate horiek deskargatzeko aukera dago Udalaren webgunean. Ekimenaren hurrengo urratsa DBH-ko ikasleei bideratutakoa izan daitekeela iragarri zuten.

# Guraso Eguna etzi, Zahar-Berriren eta Txatxilipurdiren eskutik

J.B. | ARRASATE

Euskararen transmisioan familiak duen garrantziaz ohartaraztea, jolasekin eta une atsegina pasatzeko asmoz. Hori da zapaturako Txatxilipurdik eta Zahar-Berri programak elkarlanean antolatu duten Guraso Egunaren helburua: "Beharrezkoa ikusten dugu gurasoek edota familiako kide helduek euskara erabiltzea, ahalegin horri esker gertatuko delako integrazio linguistikoa". Seber Altube plazan, 11:00etatik 13:00etara.

Integrazio linguistiko hori bultzatzeko *Guraso-lagun* izeneko ekimena jarri gura dute martxan bi elkarteek; gurasoen artean euskarazko mintzapraktika saioak dira. Zapatuan ekimen horretan izena emateko aukera egongo da. Era berean, haurrendako bigarren eskuko denetariko materiala egongo da salgai, "oso merke".



Ume bat kamerari begira. | GOIENA

# Abuztuan kalteak jasan ostean, neguko aterpetxea azaroaren 4an irekiko dute

J.B. | ARRASATE

Azaroaren 4an irekiko dute neguko aterpetxea. Aurten, espero ez zuten oztopo bati egin behar izan diote aurre: abuztuan, aterpetxea itxita zegoen bitartean, zenbait pertsona sartu eta hainbat kalte eragin zituzten, eta garbiketa eta egokitzeko lanetan 2.600 euro gastatuko dituzte Udaleko Gizarte Zerbitzuek. Aterpetxearen helburuak dira etxerik gabeko pertsonei negua pasatzeko lekua eskaintzea, beste baliabide batzuetarako sarrera erraztea eta prest agertzen direnei bizi duten egoera sozio-pertsonala hobetzera bideratzeko beharrezkoa den interbentzioa egitea.

## Birziklatutako bitxien eta fularren ikastaroa Bedoña Baturi esker

Zapatuan egingo dute ikastaroa Bedoñako eskola etxean (10:00-13:00). Gaur da izena emateko azken eguna; auzokoek bost euro ordaindu beharko dituzte eta kanpokoek, berriz, hamar euro. Izena emateko eta argibide gehiagorako, deitu 688 88 79 09 telefono zenbakira.

## OHARRAK

**1959AN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 23an egingo dute bazkaria. Azaroaren 8rako eman behar da izena; 60 euro sartu behar dira 3035 0047 11 0471084297 kontu zenbakian.

**1985EAN JAIOTAKOAK**

Azaroaren 23an elkartuko dira; 35 euro sartu behar dira 3035 0023 97 0230084289 kontuan, azaroaren 10a baino lehen.

Azken blokearen salmenta Uribarrin, bista paregabearekin!



UTE URIBARRI AUZOA ARRASATE



- Orientazio paregabea.
- Kokapen pribilegiatua.
- Kalitatezko etxebizitzak.
- 2 logelako etxebizitza 195.000 €-tik aurrera.
- 3 logelako etxebizitza 240.000 €-tik aurrera.

Tel.: 650 51 98 95 - www.sukia.com

Bisita ezazu gure etxebizitza pilotua!

# Goi mailako soula J.C. Brooks & The Uptown Sound-en eskutik

**J.B.** | ARRASATE

Gaztemaniak! ekimenaren eta Arrasateko Udalaren eskutik goi mailako soul kontzertua ikusteko aukera egongo da etzi, hilak 26, Amaia antzokiko hall -ean (20:00). Chicagotik (AEB) datoz eta J.C. Brooks & The Uptown da taldearen izena; mundu osoan ospetsua den *Mojo* musika aldizkariaren arabera, "gaur egungo soul banda lilugarrienetarikoa" da.

Gaur Zaragozan eta bihar Madrilen jo ostean, etzi egingo dute geldialdia Arrasaten, Euskal Herrian joko duten kontzertu bakarrean. Sarrera zazpi euro ordaindu beharko da; sarrerak salgai daude oraindik Udalaren webgunean: *www. arrasate-mondragon.net*.

**'Howl' diskoa aurkeztera**

*Howl* izeneko disko berria aurkeztuko dute zapatuan; 2012ko abenduan Howard Bilerman ekoizlearekin estudioan sartu ostean, aldez aurretik landu gabe zeuden soinu lurraldeetan amaitu dute. Beraz, 2011n argitaratutako *Want More* diskoko soul gordinarekin alderatuz gero, esan daiteke boskoteak azken lanarekin beste norabide bat hartu duela. Ohikoa ez den proposamen batez gozatzeko aukera egongo da etzi, beraz.



J.C. Brooks & The Uptown Sound; etzi, Amaiako *hall*–ean (20:00). | UDALA

# Biblioteka Eguna: ipuin saioak gaur Kulturaten, 19:00etan hasita

**J.B.** | ARRASATE

Gaur da Biblioteka Eguna. Estatuko hainbat herri eta liburutegitan ospatzen den jaia da, Amigos del Libro elkarteak antolatuta. Aurten lehen aldiz, Arrasateko Udal Bibliotekak ere zenbait ekintza antolatu ditu. Ipuin saioak antolatu dituzte: astelehenean *Kontu Kantoi* saioa egin zuten Santa Marinan, umeendako.

Atzo, La Tartana Teatro taldearen eskutik, *El Guardián de los cuentos* saioa egin zuten Kulturateko areto nagusian, 6 urtetik gorakoendako. Egitaraua borobiltzeko, gaur bi saio egongo dira helduendako, Kulturateko areto nagusian (19:00): Boni Ofogo kontalari afrikarra –gazteleraz– eta Koldo Amestoy –euskaraz.

**Literatura solasaldiak, gertu**

Bestalde, hastear dira literatura solasaldiak. Euskarazko lehen saioa urriaren 30ean izango da eta Brigit Vanderbekeren *Muskuiluak afaltzeko* liburuaren gainean egingo dute berba. Gaztelerazko saioek, berriz, antzerkia izango dute ardatz; hilaren 29an izango da lehen saioa, William Shaskespeareren *La Tempestad* obraren gainean.

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Tel: 943 79 20 56

## Hawkins Thugs talde arrasatearra, Oktoberfest jaialdira

Zapatuan Gironan (Katalunia) ospatuko den Oktoberfest jaialdian Hawkins Thugs oi! musika talde arrasatearrak hartuko du parte. Besteak beste, oi! musikaren erreferente ukaezina den Cock Sparrer taldearekin batera joko dute. Kontzertura joan gura duenak Dat tabernan eros ditzake sarrerak, 25 eurotan.



Zubizarreta eta Aranburu, Cerro Torreko gailurrean. | EGOITZ ZUBIZARRETA

# Izen handirik gabeko mendizaleak, izen handiko gailurretan

Besaidek gonbidatuta, Patagoniako Cerro Torre igo zuen Egoitz Zubizarreta Kulturaten egon da asteon



Zubizarreta, Cerro Torre tontorrerako azken horma ikusgarria parean duela. | E.Z.

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Lorpen handi baten aurrean ere *umiltasun* hitzak dituen horietakoa da Egoitz Zubizarreta (Arrasate, 1978): "Gu ez gara profesionalak. 20 urterekin hasi nintzen eskalada munduan, orduan beti nengoen Araotzen sartuta".

Aspaldiko zaletasuna du eskalada, bai, baina eskalatzen aritzen den edonor ez da gai Patagonian 3.000 metro pasatxora dauden eta erabat bertikalak diren gailurretara heltzeko. 2012ko abenduan joan zen lehenengoz Patagoniara, eta, lehen aldian, eskaladan izen handia duten bi gailur egin zituen bidelagunarekin, Aitor Aranburu irundarrarekin: Cerro Torre (3.133 metro) eta Aguja Poincenot (3.002 metro), hain zuzen ere.

**Elurra, izotza eta haitza**

Astelehenean, Besaide elkartearen Mendi Hamabostaldiaren barruan, Kulturaten egon zen Zubizarreta iazko abentura azaltzen: "Buenos Airestik zuzenean joan ginen El Chaltenera. Herri txiki bat da El Chalten, eta handik hainbat mendi igo daitezke. Guk bi igo genituen, Aguja Poincenot eta Cerro Torre".

Elur-eskalada eta eskalada mistoa tartekatu zituzten: "Piolet eta kranpoiekin igo genituen, elurra, izotza eta haitza tarteko". Esperientzia ederra izan zela gaineratu digu: "Oso positiboa izan zen. Lehen aldian joan eta Cerro Torre igotzea loteria tokatzea baino zailagoa da. Zortea izan genuen, eguraldi oso ona eta beraz, oso baldintza egokiak. Han baldintzak ez badira onak ez zara herritik irteten. Aukera aprobetxatu genuen; oso pozik gaude". Etorkizun hurbilerako ez du beste mendirik buruan: "Gogo handia dut mendira joateko, baina ez dut ezer zehatzik buruan".

**Orientazio raida eta irteera**

Besaide elkartearen Mendi Hamabostaldia amaitzeko, zapatuan umeendako orientazio raida egingo dute Monterron parkean (10:00) eta domekan mendi martxa herrikoia egingo dute Udalatxera. 09:00etan irtengo dira Monterrondik.

# Zaldibarrek jokalarien bultzada behar du

**J.B.** | ARRASATE

Zaldibarko Futbito Txapelketako antolakuntzako kideek txapelketarekin jarraitzeko asmoa dute. Hori bai, taldeen eta jokalarien laguntza behar dute 52. edizioa izango dena "indarberritzeko": "Bermatu dezagun, herrikoia eta historikoa den txapelketa hau, denon laguntza eta partaidetzarekin, galdu ez dadin", adierazi dute ohar bidez.




Sonografos eta Abokajarro taldeen arteko partidua. | GOIENA

**Azaroaren 16an hasiko da**

Txapelketa indarberritu ahal izateko, talde bakoitzeko partaide batek antolakuntzan parte har dezan gura dute, "inor derrigortu gabe eta era boluntarioan". Denboraldia azaroaren 16an hasiko da; azaroaren 11n eman ahalko da izena Kulturaten, 18:00etatik 20:00etara. Talde bakoitzak 275 euro ordaindu beharko ditu eta horietatik 75 euro fidantzarako izango dira. Izena emateko aukera ere egongo da, *zaldibarkofutbitotxapelketa@gmail.com* helbide elektronikora idatzita: "Herritarrak animatu nahi ditugu txapelketan parte hartzera".

# Martitzenean hasiko dira kuboak banatzen, azokan

## Herriguneko 6.100 familiaren artean 18.300 kubo banatuko dituzte

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Martitzenean, hilaren 29an, hasiko dira hondakinak gaika batzeko kuboak eta gainerako materiala banatzen. Egutegia egin dute kaleka eta auzoka, materiala modu ordenatuan jasotzeko, ondoko taulan ikusten denez, eta, Labegaraietako, Osintxuko, Angiozarko eta baserri auzoetako bizilagunek izan ezik, Oxirondo azokara joan beharko da.



Maria Gonzalez eta Maialen Idiazabal informatzaileak materialarekin. | M.B.

**18.300 kubo erdigunean**

Etxe bakoitzeko bi kubo marroi banatuko dituzte, hondakin organikoarendako, eta beste bat gris kolorekoa, errefusarentzat. Guztira, 18.300 kubo banatuko dituzte 6.100 familiaren artean herrigunean. Horrekin batera, informazio guztia jasotzen duen gida eta hiztegi praktikoa ere banatuko dituzte. Gidan funtzionamendua jasotzen da eta hiztegian, berriz, zer-nola bereizi behar den. Horrekin batera, hozkailurako imanak ere banatuko dituzte, egutegiarekin; hau da, egun bakoitzeko zer atera behar den.

Norbaitek zehaztutako egunetan joaterik izango ez balu, azaroaren 13ra bitartean pasatu ahal izango da.

**Informazio bulegoa, plazan**

Kuboak eta gainerako materiala Oxirondo azokan banatuko dituzten arren, informazio bulegoa San Martin plazan dago aurreko astea ezkero. Turismo Bulegoa egon izan den txokora eroan dute, Udaltzaingoaren parera, eta han artatuko dituzte herritarrak.

Hiru informatzaile arituko dira bertan: Olatz Izagirre, Maialen Idiazabal eta Maria Gonzalez; eta herritarrek izan ditzaketen zalantza eta kezkak argitzen saiatuko dira.

Materiala banatzeko herritarren laguntza eskertuko dute. Interesatuek izena eman dezakete 943 76 46 18 zenbakian edo *materialabanatzeko@gmail.com* helbidera idatzita.

### MATERIAL BANAKETA AUZOZ AUZO

| AUZOA | NOIZ HARTU | NON HARTU | ZER ORDUTATIK ZER ORDUTARA |
|---|---|---|---|
| **Bolua \| Burdiñate ingurua** | Urriak 29 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Ernai \| San Lorentzo ingurua** | Urriak 30 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Matxiategi \| Poligono ingurua** | Urriak 31 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Oxirondo \| Zubieta \| Fraiskozuri ingurua** | Azaroak 4 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Ibargarai** | Azaroak 5 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Toki Eder \| Espoloi ingurua** | Azaroak 6 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **San Antonio \| Martoko** | Azaroak 7 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Askarruntz \| Ozaeta \| Zubiaurre** | Azaroak 8 | Labegaraieta kiroldegian | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Bidekurutzeta \| San Pedro \| Zabalotegi \| Basarte (plazatik gora)** | Azaroak 11 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Barrenkalea \| Irala \| Simon Arrieta (plazatik behera)** | Azaroak 12 | Oxirondo azoka | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Angiozar** | Azaroak 13 | Angiozarko pilotalekuan | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Osintxu** | Azaroak 13 | Osintxuko pilotalekuan | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| **Landa auzoak** | Azaroaren 4tik 7ra eta 11n eta 12an | Oxirondo azokan | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |
| | Azaroaren 8an. | Labegaraietako kiroldegian | 10:00 - 14:00 17:00-20:00 |

**KOMERTZIOENDAKO ERE ZEHAZTU DITUZTE EGUNAK**

Dendek eta komertzioek azaroaren 4tik 7ra eta 11n eta 12an egin ahal izango dute euren beharren araberako materialaren aukeraketa —zein motatako kuboak behar dituzten— Oxirondo azokan. Bertan, teknikarien laguntza izango dute.

Labegaraieta inguruko komertzioen kasuan, kiroldegira joan ahal izango dira azaroaren 8an.

Camden Town
Dance Academy
Amillaga kalea 5 – BERGARA
Garai bateko Gurelan-eko bulegoetan gaude, Mutualia parean.
Tel.: 679 61 95 30
Posta elektronikoa: camdentowndanceacademy@gmail.com
http://camdendanceacademy.wix.com/bergara
Ikastaroen hasiera
azaroaren 4an
Informa zaitez!

Olmar Eléjaga: Gerentea eta irakaslea 2009ko Zaragoza Hiria Lehiaketan.
• Aretoko dantza.
• Karibeko dantza.
• Funka.
• Zunba.
• 4 urtetik aurrerako umeentzako dantzak ingelesez emanak.
• Euskal dantzak (fandangoa, arin-arina, muxikoak, aurreskua, plazako dantzak...)



Kar-kartzelaren emanaldietako bat. | GOIENA

# Umorezko saioetako azkena gaur izango da, 22:30ean gaztetxean

Emanaldi bikoitza izango da: 'Xustin' sermoia eta Alopecia en la lenguak hartuko dute parte

MONIKA BELASTEGI | BERGARA
Kar-kartzelan bakarrizketa jaialdiaren azkeneko emanaldia izango da gaur, gaztetxeak antolatuta, 22:30ean, kartzela zaharrean. Batetik, *Xustin* sermoia entzuteko aukera egongo da, eta bestetik, Alopecia en la lengua.

Hala diote gaztetxetik lehena aurkezteko orduan: "Gertukoa dugu, eta gertutasunez ohiukatuko digu bere sermoia. Gaztetxea eta eliza. Binomio garratza gurean, elizak kendu zigun Juven, eta orain gurean hartuko dugu Xustin".

Alopecia en la lenguari dagokionez, gitarra eskuan, Urretxutik datorren bikote horrek ez du inor epel utziko. *Qué no panda el cúnico* biraren baitan, kartzela zaharretik pasako dira euren umore azka, beltz, zuzen eta musikalarekin.

Sarrera hiru euro izango dira eta aurreko bi umorezko bakarrizketa emanaldiak bezala, Txapa irratitik zuzenean jarraitzeko aukera egongo da, FMko 97.2an.

# Bergara Garbiak "desobedientzia zibilerako" dei egin du

M.B. | BERGARA
Hondakinen gaikako bilketaren harira Udal Gobernu Taldeak aurreko astean egindako prentsaurrekoari erantzun egin dio Bergara Garbiak, prentsa ohar baten bitartez: "Atez atekoa inposatzea eta berehala ezartzea justifikatzeko, atez atekoaren kontra batutako sinadurekin sartzea baino ez zaio bururatu alkateari. Urte eta erdiz gordeta izan eta gero, sinadurak begiratzea otu zaie, sinadura batzeak zalantzak eragiten dizkiola esateko". Hori horrela, Bergara Garbiak uste du "orain hori esatea sinatzaile guztieiko errespetu falta" dela, eta erakusten duela denbora honetan guztian ez dietela "ez balorerik ez garrantzirik eman" herriko 4.691 sinatzaileei. Eta honakoa ekarri dute gogora: "Bilduk sinadura andanari aurre egiteko egindako gauza bakarra izan zen parodia bat muntatzea, antzezpen eta guzti, eta 250 sinadura batu zituzten. Hori bai, azaldu zuten moduan, jende garrantzitsuarenak ziren: irakasleak, intelektualak, eliteak... hau da, jende printzipala, eta, noski, inportanteagoa atez atekoaren kontra sinatu zuten 4.691 bergarararrak baino".

Horrek erakusten du, plataformaren esanetan, "alkateak zalantzak" dituela atez atekoaren alde eta kontra daudenen kopuruei dagokienez. "Zalantzak argitzeko" eurek herri kontsulta egitea proposatzen dutela ekarri dute gogora eta, hori gauzatzeko, "Udalari laguntza" eskatu diotela gaineratu. Bien bitartean, "desobedientzia zibila" proposatu dute, eta atez atekoaren kuboak ez dituztela jasoko iragarri dute.

# 2014. urteko udal tasak astelehenenko bilkuran

EAJ eta Gobernu Taldea eztabaidan aritu dira

M.B. | BERGARA
Astelehenean, hilaren 28an, egingo den osoko bilkuran bozkatuko dituzte alderdiek 2014rako udal zerga berriak, eta, EAJko udal taldeak prentsa oharrean aditzera eman duenez, "zergak bere horretan mantentzea" eskatuko dute euren bost zinegotziek "Bilduko gobernuak defendatutako %2ko igoeraren aurka": "Bergarar guztiak ari dira krisia pairatzen eta azken egunotan jasotako berriak, gainera, ez dira onak izan. Guztiek, egoera dena delakoa izanda, modu berean ordaindu beharko dituzte zergak, nahiz eta politikariek modu justuenean zehaztu beharko lituzketen", diote. Gehitu dutenez, ezin da onartu "KPIa baino altuagoa den igoera; izan ere, soldatak ez dira proportzio berean igoko, batzuk langabezian daude eta lanean ari direnei soldatak murriztu edota mantendu dizkiete".

Gobernu Taldeak herritarren kontura "dirua batzeko duen grina" ere salatu dute: " Udala dirua egiten ari da, baina legealdian ez dute ia inbertsiorik egin".

Zenbait proposamen egin dituztela ere jakinarazi dute, hala nola "700 euroz azpiko diru sarrerak dituzten alargun eta pentsiodunekin zein diru-sarrera gabeziagatik egoera larrian daudenekin salbuespenak egitea". Horrekin batera, "merkatari eta ostalariekin ere kontsiderazio bereziak izatea exijitu" diete sektorea indarberritzen saiatzeko, "horiek zuzen zuzenean ari baitira krisia sufritzen". Halaber, negozio berriak irekitzeko "lizentzia zergak ez igotzea proposatu eta 2014. urterako %50eko hobariak ezartzea" eskatu dute.

Hirigintza zergan salbuespenak egitea ere eskatu dute "behar-beharrezkoak diren obretan": "Gobernuaren kudeaketa IBIari dagokionez, ez da egokia. Alkate andreari gauzak gaizki egiteari utzi eta Bilduk proposatutako %150eko errekargua ezeztatzea eskatzen diogu, erabaki horiek herritar guztiengan dutelako eragina".

Azkenik, zabor zergaren planteamenduari ere aurka egin diote jeltzaleek: "%4ko igoera proposatu dute eta guk bere horretan mantentzea eskatu dugu kezkaturik gaudelako zabor zergak izan dezakeen bilakaeragatik; izan ere, ez dute plazaratu datu bat bera ere eragingo duen kostuari buruz".

**Igoera ez da %2koa izango**
Udal Gobernuak, bestalde, erantzun egin dio EAJko Udal Taldeari: "Gure haserrea agertu nahi dugu EAJ taldearekin, beste behin eta gurekin kontaktatu gabe komunikabideetara jo dutelako gezurrezko datuak emanez. Kasu honetan, Ogasun batzordean elkarrekin landutako datuak izan dira oker erabili dituztenak". Eta gehitu dute: "Hiru bilera egin dira udal tasen harira egun arte –urriaren 2an, urriaren 9an eta urriaren 16an–. Azkenengo bileran, Gobernu Talde honek urriaren 23an egingo zen bileran lantzekoa eta eztabaidatzekoa zen aurre-proposamena egin zuen, betiere, oposizioari espliziuki eskainita bilera horren aurretik ere elkartu eta proposamena landu ahal izateko aukera. Egia bada ere aurre-proposamen horretan udal tasak %2 igotzea aurreikusten genuela, urriaren 23ra eramandako proposamen berrian igoera %1ekoa soilik izatea proposatu genuen. Proposamen berri honen arrazoia da esku artean geneuzkan KPIren datuak aldatu izana".

Hori horrela, salatu egin dute EAJren jarduna "elkar-harremanetarako bideari muzin egin zein ordenantzen lanketarako elkarrekin adostuta dauzkagun kronograma errespetatu gabe, komunikabideetara datu sentsazionalista bat ematera atera" delako.

"Halako portaerek Gobernu taldearen eta EAJren arteko harremanen ozpintzea eta zailtzea ekartzen dute, elkarrekiko mesfidantza sortzen dutelako", esan dute.




# PSE-EEren arabera, "herritarrei iruzur eginda inposatu du Bilduk atez atekoa"

M.B. | BERGARA
PSE-EEren arabera, "Bildu bazterrak nahasten eta herritarrak engainatzen aritu da atez atekoa inposatzeko". Maquiaveloren "helburu onak bitartekoak ontzen ditu" esaldia jarri dute praktikan. Hondakinen mahaiaren apurketari dagokionez, "herritarren eta euren ordezkarien fede onarekin jolas egin" dutela uste dute, "herritarrek parte-hartzeak zerbaitetarako balioko zuela sinestarazita. Baina ikusi dutenean herritarrak konbentzitzen ez zituztela, negoziazioak apurtu eta euren sistema inposatu dute".

Sozialisten ustez, helburua "atez atekoa inposatzea zen" eta horretarako "engainatu, gezurra esan eta herriari hitza kendu diote", atez atekoaren kontra sinatu zuten 4.651 lagunei kasurik egin gabe.

Horrekin guztiarekin, sozialistek "erabateko arbuioa" adierazi nahi diote "garai ez oso urrutietara garamatzaten egiteko modu erabat antidemokratiko eta totalitarioei". Era berean, bat egiten dute Bergara Garbiak azaroaren 9rako eta 10erako deitu duen herri galdeketarekin eta herritarrei bertan partzeko dei egiten diete.

## Mokolo Egunean azoka egin nahi dute eta dei egiten diete postua jarri nahi duten herritarrei

Herritar talde bat Mokolo Eguna antolatzen ari da azaroaren 30erako eta aurten berrikuntza bat gehitu nahi diote egunari. Munibe plazan herriko artisau eta eragileek jarritako postuekin azoka herrikoia osatu nahi dute. Hala, herritarrei dei egiten diete Mokolo Eguneko azokan postua jartzeko. Interesa dutenek *mokoloeguna@hotmail.com* helbidera idatz dezakete mezua.

## OHARRAK

**1933KOEN BAZKARIA**
Azaroaren 17an egingo dute, Azpeitxin. 12:00etan meza izango dute Santa Marinan eta bazkaria 14:00etan izango da. Izena emateko 6 euro aurreratu behar dira Intxortan.

**1953KOEN AFARIA**
Azaroaren 16an egingo dute, Tartufon. Afaria 21:00etan izango da eta 23:30ean, dantzaldia. Izena emateko azken eguna azaroaren 14a da, Tarfuton 15 euro aurreratuta edo 690 92 18 49 (Juan Antonio) zenbakian.

**ZIKLOTURISTEN MARTXA**
Bergarako Txirrindulari Elkarteko zikloturistek domekan itxiko dute denboraldia. Ohi bezala, Dorletako Amari lore eskaintza egingo diote. 09:00etan abiatuko dira.

# Biain: "Hondakinek izan dute oihartzuna, baina lan gehiago ere egin dugu"

Agintean egindako bi urte eta erdien balantzea aurkeztu du Gobernuak

T.M. / O.E. | OÑATI

Datorren urteko aurrekontuak lantzen hasi da dagoeneko Udal Gobernua. Bi urte eta erdi egin ditu agintean eta orain arteko ibilbideaz ere berba egin du herritarren aurrean. "Egun badugu ikuspegi bat Udalean egindako lanaz, eta horren balorazioa egiteko ere aprobetxatu gura dugu aurrekontuen fase hau", adierazi du Mikel Biain alkateak. "Horrekin batera, baina, ekarpenak jaso gura ditugu herritarren aldetik, bai datozen bi urteetan lantzeko, bai 2014ko aurrekontuetan sartzeko", gaineratu du.


Oñati herriaren ikuspegi orokorra. | O.E.

### Astelehenean azkena

Izan ere, hurrengo aurrekontuak lantzeko prozesu honek bi norabide nagusi ditu, alkatearen esanetan: "Orain arteko balorazioa eta hemendik eta 2015era bitartean betetzeko gelditzen zaizkigun erronkak ezagutzea, batetik, eta 2014rako proposamen zehatzak jasotzea, bestetik. Izan ere, aurtengo planteamendua da zifra kopuruekin ibili beharrean, proposamenak eta ideiak jasotzea".

Gobernuan egin dituen bi urte eta erdi hauen balorazio positiboa egin du Gobernu Taldeak. "Orduan aurkeztu genuen programa hartu dugu oinarri eta zer esan genuen eta zer egin dugun azaldu gura dugu balantzea egiterakoan. Egia da hondakinen gaia izan dela, agian, oihartzun handien izan duen gaia. Baina lan handia egin dugu beste arloetan ere. Herritar guztiak gonbidatu gura ditut balorazioa emateko antolatu ditugun bilera hauetara, atalez atal jakiteko zer egin dugun", adierazi du alkateak. Gaur, eguena, esaterako, merkatariekin eta ostalariekin batuko dira udal ordezkariak balantzea aurkezteko. Astelehenean izango da azken bilera; Santa Anan izango da, gazteleraz, 19:00etan.

**DATUA**

**3**

HELBURU DITU PROZESUAK

Azken bi urteetako balantzea aurkeztu, hurrengo bi urteetarako proposamenak jaso eta datozen urratsak azaldu.

**ESANAK**

**"Ahalik eta ekarpen gehien jaso gura ditugu herritarren aldetik"**

MIKEL BIAIN | ALKATEA

### Tailer erraldoia plazan

Datorren astelehenean zabalduko da, hain zuzen ere, proposamenak jasotzeko epea. Urriaren 28tik azaroaren 18ra bitartean ekarpenak egin ahal izango dituzte herritarrek; edozein udal eraikinetan entregatu ahal izango dira proposamenak.

Proposamenak jaso ostean, 2014ko lehentasunak aurkeztuko ditu Udal Gobernuak. Azaroaren 23an izango da hori, Foruen plazan. Tailer erraldoi bat antolatuko dute egun horretan herriko plazan, eta hantxe zehaztuko dute, jende aurrean, datorren urteko aurrekontua.

## Udal zergek eta tasek %1,74ko igoera izango dute 2014an

OIHANA ELORTZA | OÑATI

Udal zergak eta tasak %1,74 igotzea proposatu du Udal Gobernuak. Horixe da 2014ko ordenantza fiskalak zehazteko eman duen irizpide nagusia. Dena dela, hileko osoko bilkuran eztabaidatu eta bozkatuko du udalbatzak, urriaren 31n egingo duten ohiko osoko bilkuran, hain zuzen ere.

Kontsumo Prezioen Indizearen (KPI) araberako igoera da. Indize hori 2012ko abuztutik 2013ko abuztura izandakoa da.

### Departamentu guztiak

Hasiera baten, udal tasa eta zerga guztiei aplikatuko diete igoera hori. Izaten dira, ordea, irizpide nagusi horretatik kanpo gelditzen diren tasak. Udalak bereziki babestu edo sustatu gura dituen jarduerei dagozkienak, esaterako, gutxiago garestitzen dira. Beste kasu batzuetan, berriz, gastuak eta sarrerak parekatu beharraren ondorioz edo tarifak berdintzeko beharrak horrela eraginda, igoera handiagoa izaten da. Irizpide orokorra, baina, KPIren igoera bera aplikatzea da.

Udal departamentuak zuzenean dagozkien tasen azterketa egiten ari dira orain, Udal Gobernuak erabaki duen irizpide nagusi hori nola aplikatu ikusten, alegia. Urriaren 31n, eguena, egingo den osoko bilkurarako 2014ko udal ordenantza fiskalen proposamenak gertu egon behar du. Aurretik, gainera, Ogasun batzordean aztertu beharko dute, eta, haren diktamenaz, Tokiko Gobernu Batzarrean ere bai. Bada, igoera 2014ko urtarriletik aplikatuko zaie udal zerga eta tasei.

### Irrati-afizionatuen estazioa jarriko dute etzi Lazarragan

Zapatuan irrati-afizionatuen estazio bat jarriko dute Lazarragako lorategian. Egun osoz jarriko du Oñatiko irrati-afizionatuen taldeko Pedro Txintxurretak, hain zuzen ere. Lope de Agirreri buruzko hamabostaldia aireratuko du indikatibo honekin: *EH2LDA*. Bestalde, 19:00etan, Lope de Agirreri buruzko kale antzerkia egingo du izen bereko kalean. ARTasoko eta Pake Lekuko kideak dira aktoreak.

### Sortuk herri batzarra egingo du zapatu goizean Eteon

Sortuk herri batzarra egingo du zapatu goizean, 09:00etan, Eteo eraikinean. Gai ordenan sartu dituzten puntuak dira: ikasturte berriko plangintzaren aurkezpena, Europako hauteskundeetarako estrategia eztabaidatzea eta erabakitzea, zaintza partekatuaren lege proposamenaren gaineko eztabaida eta erabakia eta Espainiako banderaren inguruko eztabaida. Batzarra irekia izango da.

### Potx eta Motx gaztelekuan izango dira domekan

Potx eta Motx pailazoak gaztelekuan izango dira domekan. *Naturan barrena* izeneko ikuskizuna aurkeztuko dute. 12:30ean izango da, eta herriko ume eta guraso guztiak daude gonbidatuta. Sarrera bi euro izango da.

*Potx eta Motx naturan barrena* ikuskizuna Eskoriatzan estreinatu zuten pailazo oñatiarrek, eta domekan aurkeztuko dute herritarren aurrean. Gaztelekuan izango da ekitaldi hori, domekan, urriak 27, eguerdian.



IRATI GOITIA

## "Desafioez" mintzatu da Egibar

Joseba Egibar, Gipuzkoa Buru Batzarreko presidentea, Batzokian izan zen astelehenean alderdiaren estrategia politikoaren gakoen gainean hitz egiten. Besteak beste, esan zuen Euskal Herriak egun hiru desafio nagusi dituela: "Krisi ekonomikoa; bakea eta bizikidetza bermatzea; eta erabakitze eskubidea lortzeko urratsak egitea".


O.E.

## Txakolina nola egiten den ikusi dute, eta lagundu

Urgaineko eta Txantxiku Ikastolako Lehen Hezkuntzako laugarren mailako ikasleek Upaingoa txakolina nola egiten den ikusi zuten gertutik astelehenean. Mahatsa batzen hasi zuten goiza. Hiruko taldetan antolatu ziren. Kaxak mahats sortaz bete ondoren, upategira joan ziren eta han, Victor Leiba enologoaren azalpenak entzun zituzten. Bada, mahatsa probatu eta mostoa edan zuten.

## Argazkizkiak sariketa, hitano eta orientazio ikastaroak udazkenean

Z.V.D.M. | ARETXABALETA

Loramendik Argazkizkiak literatur lehiaketa antolatu du, bigarrenez. "Idatzizko edozein testu genero –poesia, bertsoa, ipuina...– eta argazki bat elkarrekin lotuta osatutako lana aurkeztu beharko da". Gaia librea da eta lanak aurkezteko azken eguna azaroaren 6a izango dela eman dute aditzera.

Hiru sari egongo dira, hirurak Elkar dendan gastatzeko txartelak: 100 euro lehenengoarentzat; 60 bigarrenarentzat; eta 40 hirugarrenarentzat.

**Hitanoa ikasteko tailerra**

Azaroaren 5ean hasita, eta bost astean zehar, hika ikasteko tailerra egingo dute astelehen eta eguaztenetan. Udaletxe zaharrean eskainiko dute ikastaroa, 18:00etatik 20:00ak bitartean.

Bazkideek 16 euro ordaindu beharko dituzte eta 20 euro, berriz, bazkide ez direnek. Izen-ematea Loramendin bertan egin daiteke, baina baita Aretxabaletako Udal Euskaltegian ere.

**Orientazio ikastaroa**

Azkenik, orientazioko oinarrizko ikastaroa antolatu dute Murrukixo eta Zaraia mendi taldeekin batera, eta azaroaren 15ean, 16an eta 17an izango da. "Aurreneko saioa udaletxe zaharrean izango da (teorikoa) eta ikasitakoa Urbasan jarriko dugu praktikan hurrengo bi egunetan". Mendizaleari mapak ezagutzeko eta interpretatzeko, kartografian eta errealitatean erliebe orografikoak identifikatzeko oinarrizko ezagutzak irakatsiko dizkiote. "GPSak huts egiten digunean edo behe-lainoak harrapatzen gaituenean nabigatzeko baliabideak eskuratzeko".

Ikastaroaren prezioa pertsona kopuruaren araberakoa izango da: 75 euro sei pertsonako taldea bada; 55 euro hamar pertsonakoa bada; eta 40 euro hamasei pertsona bada.

### 'Mendiko altxorra' antzezlana ekarriko du Patata Tropikala taldeak Zaraiara domekan (17:00)

Umeei zuzendutako ikuskizuna ekarriko du Patata Tropikala taldeak Aretxabaletara domekan, hilak 27. "Txotxongiloak, animalia erraldoiak, hankaluzeak eta, batez ere, umorea eta ezusteak erabilita haur zein helduek gozatu dezaten gura dugu, laguntasuna, elkarlana eta natura bezalako balioak bultzatuz". Zaraian izango da emanaldia, 17:00etan hasita; sarrera 3 euro da.

### Murrukixoren egutegiaren azalerako irudia hautatzeko lehiaketa antolatu du mendi elkarteak

Murrukixok argazki lehiaketa ipini du martxan. Gaia librea da eta irabazlearen lana 2014ko egutegiaren azalerako erabiliko dute; gainera, 100 euroko saria jasoko du. Formatu digitalean aurkeztu beharko dira lan horiek, "bakoitzak, gehienez, lau argazki". Egilearen datuak eta argazki bakoitzaren deskribapena aurkeztu beharko dira, martitzenetan, 19:00etatik 20:00etara, lokalean edo *murruxiko@outlook.com* helbidean, hilaren 29a baino lehen.

### Hiru peoi kontratatuko ditu Udalak, lehiaketa bidez, eta urriaren 30a da izena emateko azken eguna

Aretxabaletako Udalak hiru peoi kontratatu gura ditu eta lehiaketa deitu du horretarako. Langabezian egotea beharrezkoa da. Hilaren 30era bitartean eman ahal izango da izena; horretarako, eskabidearekin batera nortasun agiriaren kopia, Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe moduan inskribatuta dagoela dioen agiria eta lehiaketan baloratzea nahi diren egoerei buruzko agiriak aurkeztu beharko dira Udaleko erregistro orokorrean.



Durana kaleko tabernak salbuespen dira kultura ekitaldiak–eta bertan egiten direlako. | UBANE MADERA

# 2014ko udal tasa gehienak %2 igotzea onartu du udalbatzak

- Aho batez hartu zuten erabakia ezohiko bilkuran
- EH Bilduk aurkeztutako mozio bat ere onartu zuten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Astelehenean ezohiko osoko bilkura egin zuten Aretxabaletan, eta, besteak beste, datorren urteko udal tasak izan zituzten hizpide. Aho batez onartu zituzten 2014ko ordenantza fiskalak Bilduko, Aralarko eta EAJko udal ordezkariek.

Ana Bolinaga alkateak aditzera eman zuenez, alderdi guztiek dakite gaur egun "herritarren egoera ekonomikoa zein den", eta horregatik ez dela zaila izan akordiora iristea.

**Tasa gehienek %2ko igoera**

Orokorrean, %2ko igoera izango dute udal tasek datorren urtean; uraren tasan igarriko da igoera, baita zaborrarenean eta ondasun higiezinen gaineko tasan ere. Ibarra kiroldegiko tarifan ere igoera bera aplikatu dute.

**Salbuespenak tasetan**

Baina salbuespenen bat ere egongo da tasen igoera horretan. Esate baterako, zenbait zerbitzutan portzentaje bat igo barik, zuzenean hamar euroko igoera adostu zuten asteleheneko bilkuran. Esate baterako, ludotekan eta ikastaroetan.

Eta tabernek kalean ipintzen dituzten terrazen gaineko tasek aldaketa izango dute 2014an. Hori horrela, Durana kaleko, Herriko Plazako, Iralabarriko eta Eguzki plazetako tabernek izango dute %2ko igoera. "Nolabaiteko toki pribilegiatuetan daudela uste dugu, dela bertan parkeak daudelako edo ekitaldi kulturalak taberna horien inguruan antolatzen direlako". Horregatik aplikatuko zaie KPIa, eta ondorioz, %2a igoko da tabernariek ordaindu beharrekoa.

Periferian dauden tabernek, ostera, "diskriminazio positiboa" izango dutela azaldu zuten. Horiek %10eko jaitsiera izango dute, astelehenean erabaki zutenez. "Euren eguneroko ekonomian laguntzeko modu bat da".

**Urats-gain fundazioa hizpide**

Urats-gain Zaharren Egoitza Fundazioaren gainean ere egin zuten berba astelehenean. "Gure fundazioa da eta dagoeneko fisikoki fundazio bezala ez existitu arren, lehengo zaharren egoitzan zebiltzan langileetako batzuek egun GSR Debagoiena egoitzan egiten dute lan. Haien soldatak direla -eta zerga batzuk ordaindu behar dira". Horrela izatea onartu zuten.

**Mozioa, aurrera**

Gainera, EH Bilduk *Epaiketa politiko gehiagorik ez* izeneko mozioa aurkeztu zuen. "Garai berri baten aurrean gaude, eta klase politikoak eta baita jendarteak ere bizi du egoera hori. Horren aldeko urratsak egiten ari da jendea eta badirudi batzuei ez zaiela interesatzen. Horren erakusgarri da urriaren 14an 40 gazteren aurkako epaiketa hasi zela". Halaxe esan zuen Ana Bolinagak amaieran.

Besteak beste, "instrukzio bidegabeetan oinarritutako epaiketak geratzea" eskatzen zuen mozioak. Aurkeztutako testuaren alde bozkatu zuten Bilduko eta Aralarko udal ordezkariek; EAJ, berriz, abstenitu egin zen.

Mobiliario Arenaza
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

zenbaki
aholkulariak-abokatuak
• Juridikoa:
- Zibila: banantzeak, herentziak, edozein motatako erreklamazioak.
- Penala: hutsegite epaiketak, salaketak, zirkulazio istripuak.
- Administratiboa: zigortzaile txostenak, errekurtsoak.
- Merkataritzakoa: sozietateen eratzeak, ordaingabeak, hartzekodun konkurtsoa.
• Laborala: erretiroak, kaleratzeak, enplegu-erregulazioko espedienteak.
• Fiskala: enpresen balorazioak, bideragarritasun-txostenak, likidazioen elaborazioa.
• Kontabilitatea: pertsona fisiko eta juridikoak.
ARETXABALETA • Tel.: 943 71 21 12

## OHARRAK

**GURASOEN TOPAGUNEA**
Gaur, eguena, amaitzen da Guraso elkargunerako izen-ematea. Interesatuek kultura etxeko Gazteria Zerbitzuan edo Eskoriatzako ikastetxeetan apuntatu behar dute.

**SUKALDARITZA TAILERRA**
Astero moduan, ekintza bereziak dituzte gaztelekuan: bihar, sukaldaritza tailerra dute; eta etzi, ping-pong txapelketa.

**FUTBOL TXAPELKETA**
Azaroaren 1eko eta 2ko asteburuan jokatuko dute Luis Ezeizako II. Futbol Txapelketa, eta parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago hilaren 29ra arte, Zarauztarra tabernan edo Goiko lokalean (Fontaneria Sanchez, Tesa parean). Informazio gehiago: 646 942 866 edo 672 259 221.

**EAJ-REN MENDEURRENA**
Mendeurrenaren bueltan honako oharra kaleratu du alderdi jeltzaleak: "Eskoriatzako EAJ-PNV-k eskerrak eman nahi dizkizue abertzaletasunak Eskoriatzan 100 urte bete dituela ospatzeko antolatu ditugun ekitaldietan parte hartzeagatik. Bestalde, gure eskerrik beroenak eta zorionak domekako ekitaldian omenduak izan zineten guztioi".

# Hondakinak gaika jasotzeko zintzilikarioak jartzen hasi dira

Astelehenean eta martitzenean materiala banatuko dute herritarren artean

MIRIAN BITERI | ESKORIATZA

Azaroaren 4an jarriko dute martxan herriko iparraldean hondakinak gaika jasotzeko proba pilotua, eta dagoeneko hasi dira horiek jasotzeko zintzilikarioak jartzen. Udal brigadako langileak astelehenean hasi ziren gertaketa lanekin, eta denera, bi aste dituzte zintzilikario guztiak eta edukiontzi marroiak herritarrekin adostutako bilketa puntuetan jartzeko.

Bestalde, astelehenean materiala banatzen hasiko dira. Hiru ontzi banatuko dituzte herritarren artean: papera eta kartoiendako ontzi urdina, errefusarentzako grisa eta hondakin organikoarendako marroia. Horrez gain, sistemari buruzko gida, hiztegia eta egutegia emango zaizkie. Zabor organikoa botatzeko edukiontzietarako giltza ere jasoko dute; etxebizitza bakoitzeko bana.



San Pedro auzoan jarritako zintzilikarioa. | MIRIAN BITERI

### Ilarak saihestu

Astelehena eta martitzena bitartean, Intxaurtxueta eta San Pedro auzoetan eta Gaztañadui kaleko 27. eta 29. atarteetan bizi diren eskoriatzarrek Ibarraundi museoko lehenengo solairura joan behar dute materiala jasotzera; denera, 601 etxebizitzari eragiten dio probak. Hondakinen informazio zerbitzuan lanean dabiltzanek esan digute ez dela hitzordurik eskatu behar; agertzearekin nahikoa dela. Dena dela, ilarak saiheste aldera, gomendatu dute, ahal dela, 13:00etan edo 17:30etik aurrera ez joatea. Honako ordutegian jaso ahal dira: astelehenean, 11:00etatik 14:00etara eta 15:00etatik 19:00etara; martitzenean, 10:00etan hasiko dira banaketarekin.

Nortasun agiria baino ez dute aurkeztu behar izango, eta harremanetarako telefonoa ere eskatuko diete. Norbait ezin bada bi egun horietan Ibarraundira joan, beste lagun bat bidal dezake, bere nortasun agiria eta telefono zenbakia aurkeztuta; eta telefonoz ere dei dezakete, 943 71 54 53 zenbakira.

### Komertzioen beharren arabera

Bestalde, eguaztenean, hilak 30, komertzioei emango diete dagokien materiala; denera, 23 komertziori. Horiekin batzarrak egin dira aurretik, eta bakoitzaren beharrak kontuan izan dira ontzi bat edo beste izateko.

## Uretako parkea jarriko dute etzi kiroldegiko igerilekuan

Udazkenarekin batera uretako parkea bueltatuko da herriko kiroldegiko igerilekura. Etzi, domeka, arratsaldean jarriko dituzte puzgarriak, honako ordutegian: 16:00etatik 17:15era 7 urtetik beherakoendako izango da; 17:15etik 18:00etara, 8 eta 10 urte artekoendako; eta ordu horretatik 20:00etara, 11 eta 14 bitartekoendako. Kiroldegiko bazkideek bi euro ordaindu beharko dituzte sarreragatik eta gainerakoek, aldiz, hiru euro.

## Izena eman daiteke oraindik Amuskaren antzerki ikastaroan

Amuska emakumeen elkarteak antolatutako antzerki ikastaroa hasita badago ere, zabalik segitzen du izen-emateak. Interesa dutenek eta Amuskako bazkide direnek 40 euro sartu behar dituzte 3035 0044 85 0441021091 kontu korrontean; eta bazkide ez direnek, ostera, 60 euro. Amuskatik azaldu dute hilean bi zapatutan izango direla eskolak, 11:00etan, kultura etxean, eta ikastaroak urte osoa iraungo duela. Irakaslea Arantxa Perez de Letona da.



MIRIAN BITERI

## Hasi dira erdialdeko obrak

Dagoeneko lanean dabiltza Gaimaz enpresako langileak; Luis Ezeiza ikastetxe pareko espaloian hasi dira, eta, hori dela eta, errepide zati bat egokitu dute oinezkoendako. Udalak aurreikusi du lanok bi hilabete iraungo dutela eta denbora tarte horretan eragozpenak sortuko dituztela; bada, pazientzia eskatu die herritarrei.

## Bertan behera geratu da biharko auzolana

M.B. | ESKORIATZA

Arazo teknikoak direla eta, bihar, zapatua, egitekoa zen *Auzolana familian: Zarimutz eta Mazmela arteko trenbide zaharra berreskuratzea* izeneko ekimena eta jarraian Mazmelan aurreikusita zegoen umeendako antzerkia bertan behera geratu dira.

Bestalde, Gazteria Zerbitzutik azaldu digute lanean dihardutela herriko guraso elkarteekin batera azaroaren 9rako Torrebaso parkearen bueltan beste ekintzaren bat gertatzeko.



MIRIAN BITERI

## Zuriñe Galartza, lan aholkularia

Bi aste daramatza Zuriñe Galartzak martitzenetan udaletxeko Gizarte Zerbitzuetako bulegoetara joaten. Lanerako orientazio zerbitzu ibiltarian dabil; hain zuzen ere, lana bilatzeko aholkuak ematen dizkie herritarrei. Azaroaren 5ean izango da ostera, baina dagoeneko beteta du agenda; azaroaren 19rako dabiltza hitzorduak ematen.

LENIZ
ESKORIATZA
SUZUKI
KONPONKETAK:
Txapa
Margoa
Mekanika
Aingeru Guarda Pasealekua 31. • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 40 10



Lehen eta bigarren mailetako hainbat ikasle gela aurrefabrikatuetara sartzen. | IURE EIZAGIRRE

# Eskolako lehen mailetako bi talde aurrefabrikatuetan daude

## Uztailean hasi zituzten lanak eta duela bi aste lekualdatu ziren ikasleak

**IURE EIZAGIRRE** | ANTZUOLA

Herri Eskolak oraingoz eman dio amaiera azken urteetan arazo bihurtu den leku faltari. Urtetik urtera ikasle gehiago daude zentroan eta duela pare bat urte egin zuten eskola handitzeko eskaria Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailean. Proiektua onartuta badago ere, oraindik itxaron egin beharko da eta momentuz eskolako atzealdean jarritako bi gela aurrefabrikaturekin egin beharko dute aurrera.

Uda hasieran jarri ziren martxan gela aurrefabrikatuak egokitzeko lanak eta Pilar Etxaniz eskolako zuzendariak adierazi duenez, "batez ere oinarria egin zuten, obra zibila". Abuztuan obrak geldirik egon ziren eta irailean, klaseak hasi ostean, ekin zieten berriro lanei.

Duela bi aste amaitu zituzten egokitze-lanak eta beharrezko altzariak eta materiala hara eraman ondoren, egun Lehen Hezkuntzako lehen eta bigarren mailetako talde bana dago gela aurrefabrikatuetan. Guztira, 31 ikasle dira.

### Obra zibila Udalak

Uztailaren hasieran bildu ziren Herri Eskolako, Udaleko eta Pausoka guraso elkarteko ordezkariak Hezkuntzako ordezkaritzarekin. "Hezkuntza Sailak ez zuela dirurik eta ezin zuela obra guztia bere gain hartu esan zigun", azaldu du Etxanizek. Antzuolako Udalak, orduan, bere gain hartu zuen obraren zati bat. Eta kostuak kontuan izanda, hasierako proiektu hark ez zuen aurrefabrikatuek komunik izaterik aurreikusten.

"Ikasturtea hasi zenean gurasoek eta irakasleek esan ziguten komunak beharrezkoak zirela", dio Inma Beristain alkateak. Hezkuntzako ordezkaritzarekin hitz egin eta bi gelako moduluaren pasilloan komunak jartzea erabaki zuten. "Komunak Hezkuntzak ipini ditu, baina obra zibila -ura bideratzea eta estolderiak egokitzea- Udalak egin du".

Horrez gain, argiteria Sagasti kaleko lineari lotzea eta aurrefabrikatuak behar bezala kokatzeko eremua egokitzeko lanak bere gain hartu ditu Udalak. "Guztira, 36.000 euro inguru kostatu dira lanak eta Hezkuntza Sailak 13.000 euro jarri ditu".

### Datozen urteetan gehiago

Lehen aurrefabrikatuak dira hauek baina egoera ikusita, aurrerago gehiago jarri beharko dituztela aurreikusten dute: "Agindu ta dugu eskola handitzea baina ikusi beharko da gauzak nola dauden. Eta bitartean egingo dira aurrefabrikatu gehiago".



ARROLA MENDI TALDEA

## Herritarren parte-hartze polita Finalista Egunean

Gipuzkoako Mendizale Federazioak antolatuta, probintzia mailako Finalistaren Eguna egin zuten joan den domekan Donostian. Aurrez izena emandakoren batek huts egin bazuen ere, antzuolarren ordezkaritza polita joan zen Donostiara: 19 haur eta 18 nagusi. Goiz abiatu ziren Antzuolatik, hiriburura heldu eta 09:00etan 5,5 kilometroko ibilbideari ekiteko. Zurriola ikastola izan zuten abiapuntu eta helmuga.

# Obra eta instalazio publikoen mantenurako peoi kontratazioa

**I.E.** | ANTZUOLA

Gipuzkoako Foru Aldundiak martxan jarritako udaletako zerbitzu publikoen kudeaketari dagozkion jardueretan enplegua bultzatzeko programaren barruan, Udalak obra eta instalazio publikoak mantentzeko brigadako peoi bat kontratuko du bost hilabeterako.

Posturako izena eman ahal izateko beharrezkoa da Euskal Enplegu Zerbitzuan langabe gisa izena emanda egotea. Datorren astelehenean irekiko da eskariak aurkezteko epea eta azaroaren 5a arte egongo da zabalik. Antzuolako udaletxean egin behar da eskaria.

### Oposizio sistema

Lanposturako izena ematen dutenek hainbat ariketa egin beharko dituzte, eta, lehentasun irizpideak kontuan izanda, puntuazio altuena lortzen duenarendako izango da lana. Gainerakoak, baldintzak betetzen badituzte, itxaron zerrendan geratuko dira.

# Autodefentsa tailerrean izena emateko epea zabalik dago

**I.E.** | ANTZUOLA

Azaroaren 23an autodefentsa feministako beste saio bat egingo dute. Oraingoan ere Olaran etxean izango da indarkeriarekiko iritziak eta bizipenak konpartituko dituztenen bilgune.

Bigarren saio hori ere goizez izango da, 09:30etik 13:30era. Bertan parte hartu nahi duen orok zabalik du dagoeneko horretarako aukera, azaroaren 15a arte eman daiteke-eta izena. Horretarako, udaletxeko idazkaritzara edo Gizarte Zerbitzuen bulegora joan behar da.

### Bigarren saioa

Udalak joan den maiatzean antolatu zuen autodefentsa feministako lehen tailerra, hastapen modura. Sentsibilizatzea zuen helburu eta erantzun ona jaso zuen, adin askotariko 20 lagunek hartu baitzuten parte saio hartan. Bada, orduko arrakasta kontuan hartuta erabaki dute beste bat egitea.

## Zapatuan Bilbon epaiketa politikoen aurka egingo den manifestazio nazionalera joateko autobusa

Joan den astean Madrilgo Auzitegi Nazionalean hasi ziren makroepaiketa politikoen aurkako manifestazio nazionala egingo dute zapatuan Bilbon. Antzuolatik ere antolatu dute hara joateko autobusa, eta Gaztetxean eman behar da izena. Bihar izango da izena emateko azken eguna. Gazte mugimenduaren eta *Herriko tabernen* epaiketen aurkako manifestazioa da.

## Hogei lagunek hartuko dute parte Arrola Taldeak domekarako antolatutako Bardeetarako irteeran

Hogei pertsonak eman dute izena Arrola Mendi Taldeak domekarako antolatu duen Bardeetarako irteeran; beraz, asmoak aurrera jarraitzen du. 07:00etan abiatuko dira Sagasti kaletik, eta antolatzaileek gogorarazi dute domeka goizaldean ordua aldatuko dela. Eguraldia lagun ez badute, irteera aldatu eta Gasteiz eta Lizarra arteko ibilbidea egingo dute.

## Emakumeek 36ko gerran bizi izandakoei buruzko erakusketa ikusteko azken aukera asteburuan

Bihartik domekara berriro ikusgai egongo da *Debagoieneko emakumeak Gerra Zibilean eta frankismoan* argazki erakusketa. Aurreko asteburuan moduan, 18:30etik 20:30era egongo dira zabalik Olaran etxeko ateak. Ekin Emakumeak elkarteak 36ko gerran eta diktadura frankistan emakumeek bizi izandako errealitatea ezagutarazteko antolatu du erakusketa hori.

## Pedro Etxeberriaren hitzaldia atzeratu egin da eta eguaztenean izango da Landatxoperen egoitzan

Landatxope Jubilatuen Elkarteak datorren martitzenerako zuen aurreikusita Pedro Etxeberriaren hitzaldia. Arrasatearrak, baina, ezin izango du egun horretan Antzuolara joan eta egun bat atzeratu dute pentsioen inguruan egin behar zuen hitzaldia. Azkenean, beraz, urriaren 30ean izango da hitzaldia, 17:00etan hasita, Landatxoperen egoitzan.



Herriko lau erretiratu azokan, ospakizunaren aurreko edizioetako baten. | GOIENA

# Erretiratuen Eguna etzi: 60 postutik gora azokan eta 102 lagun bazkarian

## Aurten ere edadetuenak omenduko dituzte: 95 urteko Balentin Ibabe eta Maria Angeles Beitia

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARAMAIO

Herri osoa inplikatuko da zapatuko Erretiratuen Egunerako: Udala, elkarte gastronomikoak, Lagunartea dantza taldea, Trikitixa Eskola, Papargorri eta Bizente Goikoetxea abesbatzak eta txistulariak. Aurten 102 erretiratu egongo dira bazkarian eta, urtero moduan, gizonezko zein emakumezko edadetuenak omenduko dituzte: 1918ko uztailaren 4an Eguzkierripan jaiotako Balentin Ibabe eta urte bereko martxoaren 1ean Altzagan jaiotako Maria Angeles Beitia, hain zuzen. Bazkarira joaten ez badira Udaleko ordezkariek aurrerago egingo diote omemanaldi xumea.

Azoka izaten da eguneko izarra. Baserriko produktuak, artisau lanak eta animaliak egongo dira aurten ere. Hainbat postu egongo dira, askotariko produktuekin; bertako 39 –animaliendako guneak barne– eta kanpoko 28.

**Biomasaren gaineko postuak**

Aurten ere Nardeaga kalea hartuko du azokak, goizetik hasi eta 14:30ak arte. Bihar, egubakoitza, kiroldegi pareko errepidea itxiko dute animaliendako hesiak jartzeko, 17:00etatik aurrera.

Aurten nobedade nagusiak dira artzain txakur txapelketa ez dela egingo eta azokan bi postu berezi jarriko direla, biomasarekin erlazionatutakoak. Batetik, sugar enpresak biomasa bidez funtzionatzen duen galdara jarriko du martxan. Bestetik, Ekosua enpresaren katalogoa ikusteko aukera egongo da.

**EGITARAUA**

**10:30** Herriko trikitilari eta txistularien kalejira.

**12:00** Urtean zehar hildako erretiratuen omenezko meza San Martin elizan. Ondoren, Bizente Goikoetxea eta Papargorri abesbatzen saioa.

**13:00** Lagunartea dantza taldearen emanaldia.

**14:30** Bazkaria kiroldegian.

- Azoka Nardeaga kalean, 14:30ak arte.
- Elkarteetan salda eta ogitarteko txikiak erretiratu guztiendako.



JOKIN BEREZIARTUA

# Aitor Villareal hasi da Lagunartea taldea gidatzen

Aitor Villareal hasi da Lagunartea dantza taldea gidatzen. 65 bat dantzari izango dira aurten, eta zapatuan, Erretiratuen Egunean, izango dute lehen saio garrantzitsua; San Martin eliza atarian izango da, 13:00etan. Azken urteetan irakasle izan diren Adela Elexalde eta Ainara Inuntziaga laguntzen aritu dira ikasturte hasieran, baina datorren astetik aurrera Villarealen ardura izango dira Lagunartea osatzen duten sei taldeak.

# Adifek euriari egotzi dio A-2620 bideko lur-jausia

## Kalte-ordainak erreklamatu dituzten herritarrei erantzukizunik ez dutela erantzun diete

**J.B.** | ARAMAIO

Arrasatetik Aramaiorako A-2620 errepidea itxi izanak eragindako kalte-ordainen erreklamazioak direla-eta, Adif erakundea hasi da, pixkanaka, norbanakoen eskaerei erantzuten. Astelehenean herri batzarra egin zuten Sastiñan, erantzun horien aurrean zer egin erabakitzeko. Izan ere, herritarrek orain arte jaso dituzten erantzunetan, errepidea itxi zuen lur-jausia euriari leporatu dio Adifek: "Orduko meteorologia partea aurkeztu dute, eta lur-jausia egun haietan egin zuen euriak eragin zuela ondorioztatu. Beraz, eragindako kalteetan erantzukizunik ez dutela diote", adierazi dute Udaleko ordezkariek.

Bide judizialari heltzeko aukera dago, baina bide horri helduz gero, "kasu gehienetan" gastuak handiagoak izango dira AHTko lanak gidatzen diharduen Espainiako Sustapen Ministerioak eman ahal izango dituen kalte-ordainak baino. Orain, Udalak planteatzen duena da beste erreklamazio bat jartzea, "denbora irabazteko". Era berean, hainbat dira kalte-ordainak eskatzeko asmoa izan arren tramite konplexuak direlako bidean geratu diren herritarrak.

**Banderaren auzia ere hizpide**

Espainiako bandera udaletxean jartzeko aginduaren gainean ere egin zuten berba batzarrean. Ikurrinari omenaldia egitea eta herrian bizi diren nazionalitateetako banderak jartzea aurreikusten dute. Hala ere, horiek guztiak zehazteko beste batzar bat egingo dute hilaren 29an Sastiñan bertan (19:00).

### Azken eguna gaur, 2014ko egutegia osatzeko Udalak antolatzen duen argazki lehiaketan parte hartzeko

Aurten ere argazki lehiaketa antolatu du Udalak 2014ko egutegia osatzeko. Sari nagusia 200 eurokoa izango da eta urtaro bakoitzeko argazki onenaren egileak 100 euro jasoko du. Argazki guztiek Aramaion ateratakoak izan behar dute eta gaur da horiek entregatzeko azken eguna, kultur etxean edo udaletxean. Parte hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru argazki bidal ditzake.

### Aurrez bertan behera geratu ostean, 'Auzokideak' antzezlana bihar helduko da kultur etxera (22:30)

Phanta Rhei antzerki taldearen *Auzokideak* antzezlana ikusteko aukera egongo da bihar kultur etxean, 22:30ean. Eginaren Eginez elkartearekin batera sortutako ekimena da; Eginaren Eginez Arabako ezindu fisikoen elkartea da eta bertako zenbait kide ikusi ahal izango dira agertoki gainean. Urriaren 11n bertan behera geratu ostean, bihar bueltatuko dira. Sarrera doan da.

### Arrasateko 'La tabernera del puerto' zarzuelarako autobusa antolatuko du Alaiak erretiratu elkarteak

Izaskun Murgia Elkarte Lirikoak *La tabernera del puerto* zarzuela dela-eta azaroaren 30an egingo duen emanaldirako autobusa antolatu du Alaiak elkarteak. Autobusa eta sarrera erreserbatzeko 19 euro sartu beharko dira erretiratu elkarteak Laboral Kutxan duen kontu korronte zenbakian, azaroaren 4a baino lehen. Emanaldia Amaia antzokian izango da, 19:30ean.

## ARETO FUTBOLA

**SAILKAPENA**

| | TALDEA | P | J |
|---|---|---|---|
| 1 | Bar Flor de Lara | 2 | 6 |
| 2 | Electricidad Jolma | 2 | 6 |
| 3 | Real Beni | 2 | 6 |
| 4 | Cafeteria Manai | 2 | 6 |
| 5 | Bar Pura Vida | 1 | 3 |
| 6 | Galtxagorri-Gasteiz | 2 | 3 |
| 7 | New Beer House | 1 | 0 |
| 8 | Numero K | 2 | 0 |
| 9 | La Trattoria Da Luigi | 2 | 0 |
| 10 | Colegio San Prudencio | 2 | 0 |
| 11 | Aramaixo | 2 | 0 |

**EMAITZAK**

Electricidad Jolma 10- 3 Aramaixo

### Bi asteko deskantsua

Denboraldia bi maila gorago hasi izana igarri du Aramaixo taldeak. Joan den asteburuan jipoia jaso zuten. Hurrengo jardunaldia bi aste bukaera barru jokatuko dute aramaioarrek.

ELGETA

# Udalak, orokorrean, %1 igoko ditu tasak eta zergak 2014an

## Zaborren tasa %2 igoko da eta etxebizitza hutsen gaineko gainkarga, %100

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Udalbatzak martitzenean onartu zituen 2014rako udal tasak eta ordenantza fiskalak. Aralar-Independenteak taldeak egindako proposamenak aurrera egin zuen. Bildu abstenitu egin zen zaborren tasan: Janire Lazkano bozeramaileak adierazi zuen gaia lantzeko epe laburra eman zitzaiela. Jeltzaleek, berriz, inor erroldatuta ez duten etxebizitzei aplikatuko zaien %100eko errekarguaren kontra bozkatu zuten. "Gainkargarik ez aplikatzearen aldekoak gara. Neurri hori ez da eragingarria", esan zuen jeltzaleen bozeramaile Patxi Basaurik.

**Berezitasunak**

Udalak, orokorrean, %1 igoko ditu udal zergak. Igoerarik aplikatuko ez delako salbuespena dira, esaterako, landa lurren gaineko zerga, ekonomia jardueraren gaineko zerga, kirol zerbitzuak, haurrei zuzendutako zerbitzuak, hilerriko tasa, ibilbide tematikoaren prezioa eta etxebizitza tutelatuko zerbitzua. Bestetik, higiezinen gaineko zerga %2 igoko da —Aldundiak %1 igoko duelako balio katastrala—, eta inor erroldatuta ez duten etxebizitzei %100eko gainkarga aplikatuko zaie.

Zaborren gaineko tasa %2 igoko dute —Mankomunitateak %10 igoera aplikatuko dio Udalari—. "Esan beharra dago erabaki honek dakarrela Elgetako Udalak zaborren kudeaketa 11.000 euro inguru finantzatzea, eta horrek ondorio zuzena izango du 2014ko aurrekontuan", esan zuen Oxel Erostarbe alkateak. Konposta egitera animatu zituen herritarrak, hobariekin alde nabaria izango delako ordainketan.

**DATUA**

**%2**
IGOERA
Zaborren gaineko tasan eta higiezinen gaineko zergan igoera berezia aplikatuko da.

**%100**
IGOERA
Inor erroldatuta ez duten etxebizitzei gainkarga berezia aplikatuko zaie.



Lanak Aurtengua baserri aurrean, atzo. | L.Z.

# Herriko bi baserri-bide konpontzen ari dira

## Barrenengua eta Aurtengua baserrietarako bidea da bat eta Mendikute baserrirako bidea da bestea

L.Z. | ELGETA

Mendi Nekazaritzara iaz aurkeztutako bi proiektu gauzatzen ari dira egunotan Lasuen enpresako beharginak. Egitekoak dira Barrenengua eta Aurtengua baserrietara doan bidea asfaltatzea eta Mendikute baserrira doan bidea fresatzea; eta, horrekin batera, Mendikuterako zubian hesia ipintzea. Martitzenean hasi ziren lanak, eta Udalak aurreikusten du aste honetan bertan amaitzea. Bada, lanok 16.277 euroko aurrekontua dute.

**Finantzazio iturriak**

Barrenengua eta Aurtengua baserrietarako bidea konpontzeak 12.023 euroko aurrekontua du eta Mendikute baserrirako bidea egokitzeak, 4.254 euro.

Mendi Nekazaritzak finantzatzen du inbertsioaren %65. Kasu honetan, 10.580,05 euro. Elgetako Udalak inbertsio osoaren %20 finantzatzen du; aurten, 3.255,40 euro. Kostuaren gainerako %15a baserritarrek ordaintzen dute: aurten, 2.441,55 euro.

**Eskaera berriak**

Elgetako baserritarrek 2014. urterako proiektuak aurkezteko aukera izan dute urri hasierara bitartean. Baserritarren batzordetik aditzera eman dutenez, hiru eskaera jaso dituzte. Jasotako proposamenak aztertzen dihardute orain batzordean. Proiektuen bideragarritasuna aztertuko dute, erabakitzeko zein aurkeztuko duten Mendi Nekazaritzaren 2014ko dirulaguntzetara.

PILOTA ETA FRONTENIS TXAPELKETAK

# Frontenis txapelketako finalerdiak

Bi txapelketa ditugu martxan. Frontenisean, txapelketa mistoko finalerdiak jokatuko dituzte bihar. Pilota txapelketako partiduak, berriz, domekan izango dira.

| PILOTA TXAPELKETAKO ORAIN ARTEKO EMAITZAK | |
|---|---|
| Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Eneko Ormaetxea-Mikel Ormaetxea | 22-10 |
| Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta / Jon Irazabal-Enaitz Ezpeleta | 09-22 |
| Iñaki Olaortua-Oskar Sarasua / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi | 22-16 |
| Pello Larrea-Fernando Zenitagoia / Jabier Bolinaga-Mikel Elkoro | 22-13 |
| Angel Ibarluzea-Alberto Telleria / Iñaki Ugarteburu-Jose Mari Zubiaurre | 20-22 |
| Iraitz Bolinaga-Koldo Erostarbe / Iban Retolaza-Diego Cantabrana | 19-22 |
| Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta / Oskar Askasibar-Haritz Gallastegi | 22-18 |
| Mikel Beretxinaga-Ibon Untzetabarrenetxea / Eneko Ormaetxea-Mikel Ormaetxea | 22-14 |
| Iker Irazabal-Igor Irazabal / Luis A. Alkorta-Gorka Bolinaga | 22-14 |
| Odei Zenitagoia-Andoni Elortza / Enaitz Ezpeleta-Jon Irazabal | 22-14 |
| Oxel Erostarbe-Gorka Arizmendiarrieta / Iban Retolaza-Diego Cantabrana | 07-22 |

| FRONTENIS TXAPELKETAKO FINALERDIAK, BARIKUAN | |
|---|---|
| 10:00 | Idoia Elkoro-Jesus Belamendia / Idoia Serna-Asier Osoro |
| 16:00 | Maider Osa-Anartz Agirre / Rebeka Ubera-Xabier Ubera |

# Elgetako bi taldek eman dute izena Kantari karaoke saiorako

L.Z. | ELGETA

Abiatu da Kantari, Goiena Komunikazio Taldeak bi urtean behin Debagoieneko 8 eta 12 urte arteko gaztetxoendako egiten duen karaoke saioa. Laugarren edizio honetarako Elgetako bi taldek eman dute izena; guztira, zortzi lagunek.

**Elgetatik bi talde**

Elgetarrak taldea osatzen dute Maria Egizabalek, Anje Loitik eta Irene Castelosek. Last Pop taldeko kideak, berriz, Naikari Zubillaga, Eider Ramos, Xabier Delgado, Leire Quintas eta Uxue Gallastegi dira.

**Grabazioa azaroaren 9an**

Talde biek azaroaren 9an Bergarako Zabalotegi aretoan egingo den grabazioan hartuko dute parte. Saio hori 18:55ean hasiko da, eta senitartekoek eta lagunek aukera izango dute ikusle moduan joateko.

Elgetarrak taldeari Betagarriren *Bidea* kantua egokitu zaio. Last Pop taldeak, berriz, Hemendik At taldearen *Eskutitza* kantua abestuko du. Grabazioa egin baino astebete lehenago entsegua egingo dute talde biek Bergaran. Koreografia landuko dute, gehienbat, entsegu horretan.

OHARRAK

**GABONETAKO LOTERIA, EAJ**

Elgetako jeltzaleek jakinarazi dute salgai dutela Gabonetako Loteria. Interesatuek Maria Jesus Leterengana edo Begoña Ardantzarengana jo behar dute azaroaren 18a baino lehen.

**ELKARRETARATZEA**

Azken barikua denez, presoen aldeko elkarretaratzea egingo dute bihar, 20:00etan, plazan.

**LAGUNTZAK: HEZKUNTZA**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak zabaldu du dirulaguntza ez unibertsitarioak eskatzeko epea. Informazio gehiagorako, jo eskolako zuzendaritzara.

**YLLANAREN ANTZEZLANA**

Yllana taldeak *Far West* antzezlana egingo du bihar, barikua, Espaloian. Sarrerak salgai daude 15 eurotan (bazkideek, 12).

LEINTZ GATZAGA

# Autodefentsa tailerra eta lanerako orientazio zerbitzua eskuragai

UBANE MADERA | GATZAGA

Emakumeen kontrako indarkeria salatzeko egunaren bueltan (azaroaren 25) Autodefentsa Feminista Tailerra antolatu du Bideberri mankomunitateak Leintz Gatzagan. Doako ikastaroa izango da, azaroaren 16an egingo dutena (zapatua). Hain justu, 09:30etik 13:30era egin dute hitzordua, udalerriko kultura etxean. Beraz, interesa duen edozein emakumek udaletxera jo eta bertan eman dezake izena. Edo telefonoz ere egin daiteke: 943 71 47 46.

Helburuak honakoak dira: Eraso mota ezberdinak identifikatzea, autodefentsaz aritu eta erasoei aurre egiteko estrategiak lantzea, indarkeriaren inguruko bizipenak partekatzea eta elkar entzun eta beldur eta emozio ezberdinei buruz hitz egitea".

**Enplegu kontuetan orientazioa**

Bestalde, Leintz Gatzagako Udalak jakinarazi gura du lanerako orientazio zerbitzua ere badagoela herritarren eskura. Kasu horretan, honako gaiak lantzeko aukera dago: enplegu-baliabideen inguruko informazio zabala; norberaren lanerako helburuak definitzeko laguntza; lan-bilatze plangintzan aholkularitza; lana bilatzeko erremintetan trebakuntza (curriculuma idazteko, aurkezpen gutunak prestatzeko…); lan elkarrizketarako prestaketa eta lan bilaketarako online baliabideak, sare sozialen erabilera barne.

Era berean, jakinarazi gura dute enplegu zentroan eguneratutako lan informazioa jartzen dutela guztien eskura.

Halako zerbitzuren baten beharra izanez gero, txanda hartu beharra dago gizarte langileArekin: *ongizatea@leintzgatzaga.com* edo 943 71 47 46ra deituta.

# Urari dagokion zerga ordaintzeko epea zabalik dago

Ur zerbitzuarekin lotutako hirugarren hilabeteari dagokion zerga ordaintzeko borondatezko epea zabalik dago. Joan den asteko martitzenean zabaldu zuten epea, eta halaxe egongo da abenduaren 14ra arte, hain justu. Behin epe hori pasatuta zerga ordaindu ez bada, errekarguarekin kobratuko dute.



# UDAKO ARGAZKIEN IX. GOIENA LEHIAKETA



**Argazki guztiak fotoblog honetan:** ***blogak.goiena.net/argazkiak***

**Baita hemen ere:** udakoargazkiak udakoargazkiak

# Banatu ditugu sariak

Dagoeneko banatu ditugu Udako Argazkien IX. Goiena Lehiaketako sariak. Xabier Atxa Zugasti arrasatearrak irabazi du lehen saria, *Bilbo 2045. Non daude danak?* argazkiarekin. Bigarren saria Arkaitz Laskurain oñatiarrak eskuratu du, *Fanaz arropa sikatzen* argazkiari esker. Eta hirugarrena, Mikel Zamora aretxabaletarrak irabazi du, Glasgow-n ateratako argazkiari esker. Herritarrek euren botoekin Iñaki Uribe-Etxebarria eskoriatzarraren *Stausee Gibidum* argazkia aukeratu dute. Eta botoa eman zutenen artean egindako zozketan berriz, Ana Belastegi Aranzabal bergararrak jaso du boto emaileen saria.

1






## SARI NAGUSIA

Xabier Atxa Zugasti arrasatearrak irabazi du sai nagusia: NIKON D3100 reflex argazki-kamera digital bikaina. Bergarako KB Photoestudio argazki-dendak eskainitakoa. Argazkian, Xabier Atxa, KB Photoestudioko Bibi eta Jon-ekin.

2



2




3




## 2. SARIA

Arkaitz Laskurain oñatiarrak irabazi du bigarren saria: Bi pertsonendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Orioko AISIA hotelean, Arrasate Bidaien eskutik. Arrasate Bidaiak-eko Bea eta Anek eman zioten saria.

3



## 3. SARIA

Mikel Zamora aretxabaletarrak irabazi du hirugarren saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean. Gure Ametsako Marisak eman zion saria, Mikel Zamoraren anaia den Santiri.

HERRITARREN SARIA



HERRITARREN SARIA



BOTO EMAILEENTZAT SARIA



## HERRITARREN SARIA:

Zure botoekin Iñaki Uribe-Etxebarria eskoriatzarraren argazkia aukeratu duzue. Saria: Google Android sistemadun 7 hazbeteko tableta, Arrasateko Eroski hipermerkatuaren eskutik.

## BOTO EMAILEENTZAT SARIA

Botoa eman zuten guztien artean egindako zozketan Ana Belastegi Aranzabal bergararra izan zen irabazlea. Haren amak otarre bat jaso du, Arrasateko Karibu dendaren eskutik, munduko kafez osatua. Karibuko Nuria Duran-ek eman zion saria.

ANTOLATZAILEA:
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:
kb photoestudio www.kbphotoestudio.com
ARRASATE BIDAIAK
GURE AMETSA JATETXEA
Arrasateko hipermerkatua EROSKI zurekin
karibu munduko zaporeak karibumundukosaporeak.com

TXIRRINDULARITZA

**Markel Irizar** | Ziklista

# "Nirea defentsako lana da, golak sartzea beste batzuena"

## Kirol bizitzako gailurretik gertu, Irizarrek hiru urteko kontratua sinatu du Trek Factory Racing taldeaz

XABIER URZELAI | ARRASATE

Markel Irizarrenak (Oñati, 1980) ez du erremediorik. Urtarriletik hasita milaka kilometro egin ditu bizikleta gainean. Eta orain, Oñatikoak atseden egunak dituenean ere ez daki geldi egoten. Aramaiotik gora, Tellamendira bidean doala urriko zaparrada bakarretakoa harrapatu du. Gantzaga auzoko elizaren babesean zira jantzi, eta gora, lehenengoz zapalduko duen tontorrerantz. Kirol bizitzakoa bai, gailur horretara iritsi da dagoeneko, edo oso gertu dauka. Eta Tellamenditik moduan, gauza asko ikusten ditu bertatik; denak ez dira ziklismoaz lotutakoak.

**Denboraldia amaituta ere ezin geldi egon?**

Norberaren izaeraz bat egiten duen zerbait da, berez naizelako ipurterrea. Ohituta nago bizikleta gainean energia asko gastatzera, eta kirolik egiten ez dudanean igarri egiten dut; kosta egiten zait lo hartzea. Eta, aurten mendiko bizikletan nabil gustora.

**Zerbait pentsatu beharko dozu erretiroa hartzen duzunerako. Hiperaktibitate hori...**

Emazteak ere gauza bera esaten dit. Lehenago edo geroago errepideko bizikleta utzi beharko dut, baina ez naiz geldi egongo, triatloiren bat prestatu, mendiko eskia egin... Kirolari lotuta jarraituko dut, zaila izango da ni taberna bateko barran harrapatzea.

**Oraindik euri dezente egin beharko du, edo? Erretiroa hartzeko, esan nahi dut.**

Pirritx eta Porrotxen abesti batek dioen moduan, jubilatua bai, baina erretiratua ez. Askotan esaten dut zaila izango dela nik erretiratzeko erabakia hartzea, gehiago izango dela taldeak erabakitzea ez dutela nire beharrik. Arlo pertsonalean izan ditzakedan amets asko beteta daude, etxea jaso, familia sortu... Eta horrek ematen duen lasaitasunaz beste erronka batzuk irudikatzen dituzu; esaterako, kirol bizitza luzea izatea.

**Sarritan entzun izan dizut hori.**

Nire ogibideak izugarri betetzen nauelako eta garbi daukadalako pribilegiatua naizela. Taldean sekulako giroa dugu eta oso gustura nago. Sekula ezin daiteke esan ez dudala taldez aldatuko, inork ez dakielako etorkizunean zer gerta daitekeen, baina ondo sentiarazi naute. Eta, gainera, hasierako ilusioari eusten diot. Gogoan dut RadioShack-eko lehen urtean bizikleta jasotzeko irrikan nengoela, eta zapatu gauez, 23:30ean hasi nintzen etxean bizikleta berria muntatzen. Orain, Trek-eko ekipazio berria noiz iritsiko zain nago; ilusio hori galtzen dudan egunean...

**Kirol ibilbide luze hori aldatuko zenuke, esaterako, datorren urtean Paris-Roubaix irabaztearen truke?**

Ez, benetan. Hilabetez bakarrik izango nintzatekeelako zoriontsu, baina gero amorratzen egongo nintzatekeelako. Bizikletaren gainean lehiatzeak egiten nauelako zoriontsu.

**Hiru urteko kontratua sinatu duzu Trek Factory talde berriaz.**

Paris-Roubaix lasterketaren ostean etorri zitzaidan Luca [Guercilena, taldeko managerra] eta aurreratu zidan eskaintza polita egingo zidatela, gustura zeudelako nire lanaz. Horrek lasaitasun handia eman zidan, eta Tourrean eskaintza formala egin zidatenean harrituta geratu nintzen, urte kopuruagatik, baldintzengatik eta, batez ere eman zidaten konfiantzagatik.

**"Ez dut uste bizikletan ibiltzeko ilusioa inoiz galduko dudanik"**

**"Nire ogibideak izugarri betetzen nau; pribilegiatua naizela garbi dut"**

**"Berezkoa dudan positibismoa taldean zabaltzen ahalegintzen naiz"**

**Talde berrian lehenetarikoa izan zinen eskaintza jasotzen, Cancellararen eta Andy Schlecken ondoren; zer pentsa ematen du.**

Halako detaileek ematen dute konfiantza. Eta argi dudala talde barruan ze lan egin behar dudan. Ni atzelaria naiz, nire ardura ez da golak sartzea, eta bai nire taldeak ahalik eta gol gutxien jasotzea. Nire lana da 25 laguneko ihesaldi bat saihestea, liderrari haizea kentzea, babestea, ikusten ez den lan hori egitea. Eta, talde barruan izan dezakedan beste *rol* bat da berezkoa dudan positibismoa transmititzen ahalegintzea. Taldean baditut erraz kexatzen direnak, edozein tontakeriagatik "zelako kaka" esaten dutenak. Eta nik esaten diet hori ez dela kaka bat, eta bai langabezian egotea, edo kantzerra izatea.

Bestetik, aurten zorte handia izan dut, egutegi ona izan dudalako, eta taldeak lortu dituen garaipenetan parte hartu dudalako: Flandesen, Roubaixen, Kalifornian etapa bat, Tourrean etapa bat, Donostia klasikoa, Espainiako Vuelta... Eta horrek ere norberaren balioa handitzen du. Gakoa dago betetzen duzun postuan onena izaten saiatzean, eta horretarako, oso lagungarria izaten da liderraren lekuan jartzea, eta pentsatzea zelan nahiko nukeen nire taldekideek lan egitea. Amaitzeko, nire buruari ez dizkiot jarri bete ezin ditudan helburuak.

**Baina esker txarreko lana da hori.**

Bai, ez da erraza ulertzea bost hilabete ematen ditudala entrenatzen, esaterako, Flandes edo Roubaix prestatzeko. Jakinda, seguruenik, lasterketa amaitu ere ez dudala amaituko. Zergatik? Nire lana hasierako kilometroetan dagoelako, tropelean kontrarioak kontrolatzen. Aurten, esaterako, ezin nuen onartu Omegako edo Skyko ziklistez osatutako ihesaldi bat. Hotz egiten zuen Belgikan, baina oso arropa gutxirekin irten nintzen, hasieratik bero-bero joan behar nuelako. Eta, lan hori egiteko ardura taldeko bik genuen: ihesaldi guztietara etengabe irten. Gero, lasterketa lasaitzen zenean niri eskatzen zidaten tira egiteko.



Irizarrek hamaikagarren denboraldia hasiko du profesional moduan, talde berrian; bidea

Behin lan hori eginda, 170. kilometroan nire zain dago taldekideren bat, arropaz aldatu eta lasterketatik erretiratzeko. Baina, puntu horretan lasterketa kontrolpean badugu, eta Fabian [Cancellara] utzi badut 80 kilometroren faltan sei laguneko taldean sartuta, nire lana ondo egin dut. Hark errematatu behar du lasterketa, hark du gola sartzeko ardura. Baina badakit bere garaipenaren %5 nirea dela.

**Inoizko eskaintza onena jasotzeaz batera ikusi duzu zelan desagertu den profesionaletara eraman zintuen Euskaltel. Edo kirol arlotik kanpora, Fagorreko gorabeherak ere bertatik bertara bizi izan dituzu.**

Egoerak beldurra ematen du, egia esan. Eta halako adibideek erakusten didate zorionekoa naizela. Horregatik, amorrua ematen dit kexuka entzutea, esaterako, Suitzako edota Danimarkako taldekide bat, hau da, bere lurraldean krisia bizitzen ez dabilen bat; horiei esaten diet zelako zortea dugun, okerrago daudela asko eta asko. Ez dut esango krisiaren kontua ondo etorri zaidala jabetzeko benetan ze pribilegiatuak garen, horrek esan nahi duelako ni zerbaitetaz konturatzeko besteek txarto pasatu behar dutela. Baina bai, minbiziak erakutsi zidan moduan osasuna izatea ze garrantzitsua den, inguruan gertatzen ari denak erakutsi dit ze garrantzitsua den lanpostu bat izateak, eta gainera, gustuko duzun zerbaitetan jarduteak.

**Zelan kudeatzen da hori? Hau da, alde batean lagunak langabezian ikustea, eta bestetik, urtea kirolari aberatsekin pasatzea?**

Bueno, bi munduak bereiztuz, baina bi lekuetan norbera pertsona bera izanda. Ez da nire



eginez, gailurrera. | XABIER URZELAI

kasua, baina nire taldekide gehienak aberatsak dira: auto garestiak, etxeak... Eta hor, garrantsitzua da jakitea zein den norberaren maila. Baina hori hemen ere gertatzen da, kuadrillan badaude soldata oso onak dituztenak, eta langabezian daudenak; eta momentu jakin bakoitzean jakin behar da zein den norberaren egoera. Garbi dago gustura hartuko nukeela Fabianen [Cancellara] kontratua, baina ez naiz kexatzen, aberatsa ez naizen arren egoera onean nagoelako eta, gainera, aberats izateko beharrik ere ez dudalako.

**Hamaikagarren denboraldiari ekingo diozu. Zure kirol ibilbidearen gailurrean zaude?**

Erdian, erdian nago! Hamar egin ditut, bada, beste hamar ditut aurretik [Barre]. Gailurrean? Egia da urte oso ona izan dela. Emaitza pertsonalei dago-









Tellamendiko tontorrean. | X.U.

## "Aurten taldeko garaipenetan parte hartu dut, zorte hori izan dut"

## "Taldekide aberatsak ditut, baina ez dut aberats izateko beharrik"

## "Norbaiti lagunduko zion esperantzaz egin nuen 'Informe Robinson"

kienez, RadioShackeko aurreko bi urteak hobeak izan dira, baina taldearekin aurten lortu dudana... Esaterako, Fabianekin Flandes eta Roubaix irabazi izana sekulakoa izan zen, sekula ahaztuko ez dudan zerbait. Edo Chris Hornerrekin Vueltan bizi izan dudana. Bestalde, Tourrean gustura geratu nintzen egindako lanaz, tropelean zelan mugitu nintzen, esaterako. Beste batzuetan baino esfortzu txikiagoa eginda aurrean egon naiz une erabakigarri askotan; izango da esperientzia hartzen goazelako-edo.

**2013a markatu duen beste gertaera bat izan da *Informe Robinson* grabatu izana, eta horrek izan duen oihartzuna.**

Egia esan, sekulakoa izan da, ez nuen espero horrenbeste jendek ikusiko zuenik.

**Zenbat aipamen izan ditu, esaterako, Twitterren?**

Asko. Gogoan dut saioa emititu aurretik Haimarrek [Zubeldia] esan zidala ikusteko zenbat jarraitzaile nituen Twitterren, eta 6.000 nituen. Eta orain bikoiztu egin da kopuru hori. *Youtube*-n bisita mordoa izan ditu... [84.000]. Oso txukuna egin zuten, polita geratu zen saioa. Bestalde, egia da saioa egiteko gure intimitatea alboratu egin behar izan genuela, non bizi garen, gure haurrak zeintzuk diren... Baina garbi nuen saio hark norbaiti laguntzen bazion, esfortzuak merezi zuela. Eta bai, jende askori lagundu dio.

**Adibide asko daude. Hilabeteetara oraindik esker oneko mezuak jasotzen dituzu.**

Benetan hunkitu ninduen kasu bat da Mallorcan bizi den aita batena; pentsatzean oraindik oilo ipurdia jartzen zait. Kontua da aita horrek epilepsia-krisiak izaten zituela, eta kontatzen zidanagatik ez zen kapaz hiru urteko alaba txikiarekin bakarrik inora joateko. Horrek ernegatu egiten zuen, baina ez zen ausartzen bakarrik joatera, alabarekin zegoela krisi bat izanez gero bakarrik utziko zuelako, parkean, esaterako. Bada, dokumentala ikusteaz batera emaztearengana joan zen, eta esan zion egun hartan bakarrik joango zela alabarekin, beldur hori gainditu egin behar zuela. Istorio horren berri izan nuenean Alaitzi [emaztea] esan nion, honegatik bakarrik merezi izan du dokumentala grabatzea.

**Orain zuri dagokizu momentu txarrak pasatzen dabiltzanei animatzea. Eta ez da ardura makala.**

Konziente naiz nik bizi izandakoa askorendako lagungarri izan daitekeela, besteak beste, nire bizitzak film bateko gidoi baten antza daukalako. Gazte nintzela aita galdu izana, Amstrongen kantzerraren berri izandakoan gutuna bidali, gero kantzerra nik izan eta Armstrongen erantzuna jaso; gaixotasuna gainditu eta profesionaletan harekin korritzen amaitu... Beste barik, ahalegintzen naizena da bizitzak eman didana gizartera bueltatzen, eta norbaiti animo mezu bat bidaliz bada, ederto.



Ferreiro, Uribetxeberria eta Saez, Arteagako aurkezpenean. | ARITZ GORDO

SQUASHA

# Euskadiko jokalari onenak Arrasaten bihar eta etzi

### Goi maila bermatuta dago, hamar onenen arteko sei gutxienez egongo dira–eta

JAGOBA DOMINGO / J.B. | ARRASATE

Euskadiko Squash Txapelketa Nagusia Arrasaten jokatuko da aurten bigarrenez. Asteon AKE Squash taldeko Iñaki Uribe-etxeberriak eta Laura Saezek, Euskadiko Federazioko Alberto Ferreiroren laguntzaz, bihar eta etzi Musakolako kiroldegian jokatuko den txapelketa aurkeztu zuten Garagartzako Arteaga jatetxean.

Musakolako kiroldegian jokatuko den txapelketan 31 jokalarik hartuko dute parte. Maila handiko jokalariak egongo dira; Euskadiko hamar onenen arteko sei egongo dira, gutxienez. Beraz, antolatzaileek aurreratu dute partidu interesgarriak egongo direla. Bihar, egubakoitza, 18:00etan hasiko da txapelketa eta zapatuan 09:00etatik 15:00etara eta 17:00etatik 20:30era jokatuko dira azken norgehiagokak. Zapatuan bertan, txapelketa amaitu ondoren, sari banaketa egingo dute. Horrez gain, ikusleen artean erraketa bat zozketatuko dute: "Gure kirol maitea praktikatzeko aukera izango dute".

**Squash eskola sortu guran**

Oraindik squasha kirol nahiko ezezaguna da, eta hori aldatzeko lanean dabiltza azken urteetan AKE Squash taldekoak. Squash eskola sortu gura dute, eta hasiberriendako entrenamenduak egiteko gertu daude; kirol hori ezagutzeko interesa duenak telefonoz (656 736 017) edo e-postaz –*iuribetxeba@akesquash.com*– jarri beharko du harremanetan.



# KULTURA



Eguaztenean Amaia antzokian egingo duten *La Traviata* opera. | OPERA 2001

# Verdiren 'La Traviata' Amaian

- Opera 2001 konpainiak Verdiren 'La Traviata' opera egingo du eguaztenean Arrasaten
- Sarrera gutxi batzuk geratzen dira; eskuragarri daude 'ticket.kutxabank.es' atarian

**A. ARANBURUZABALA** | ARRASATE

Giuseppe Verdi (Parma, 1813-Milan, 1901) musika konposatzailearen ezagunaren jaiotzaren 200. urteurrenaren aitzakian, Arrasateko Ozenki elkarteak italiarraren opera esanguratsuenetako bat den *La Traviata* ekarriko du Amaia antzokira urriaren 30ean, eguaztena, 20:00etan.

Ozenki elkarteak, Udaleko Kultura Sailaren eta Mikel Lasa aseguru-artekaritzaren laguntzarekin, antolatutako hirugarren operaren emanaldirako sarreren bi herenak, aurreko edizioetan moduan, bizpahiru egunean saldu ziren; hala ere, atzo, eguaztena, baziren oraindik ere gutxi batzuk eskuragarri, 30 eurotan, *ticket.kutxabank.es* atarian.

**Garaiko egunerokotasunaz**

Ozenki elkarteko Manu Gallardoren esanetan, Verdiren trilogia erromantikoaren barruan sartzen da *La Traviata* (1853) obra, *Rigoletto* (1851) eta *Il trovatore* (1853) lanekin batera: "Kantu ezagun asko batzen ditu opera horrek, sarritan entzundako kantuak dira. Opera gehienetan moduan, horrek ere amodiozko istorio bat du argumentuaren oinarrian; kasu honetan, Violetta emagalduaren eta Alfredo Italiako gizarteko goi mailako kidearen artekoa; baina, azken finean, garaiko gizarteaz eta egunerokotasunaz berba egiten duen istorioa da".

Maitasunaren aldeko borrokan, amoranteek garaiko arau sozial eta etika moralak apurtuko dituzte, eta etxean izango dute etsairik handiena: Germont, Alfredoren aita. "Prostitutek euren funtzioa betetzen zuten garaiko gizartean, baina moral bikoitza zegoen eta giro horretatik kanpo gaizki ikusita zeuden. Violettak gorteko muga horiek gaindituko ditu Alfredorekin maitemintzen denean, eta senargaiaren aitak ez du inondik ere onartuko semearentzako bikotekide hori, haren izena eta etorkizuna zikintzeko beldurragatik.

**FITXA ARTISTIKOA**

**Violetta:** (sopranoa) Ainhoa Garmendia.

**Alfredo:** (tenorea) Andres Veramendi.

**Germont:** (baritonoa), Giulio Boschetti.

**D'Obigny markesa:** (baxua) Geo Chovanov.

**Douphol baroia:** (baritonoa) Nikolay Bachev.

**Gaston:** (tenorea) Dimiter Dimitrov.

**Flora:** (mezzosopranoa) Roberta Matteli.

**Annina:** (sopranoa) Tsevetomira Gitsova.

**Doktorea:** (baxua) Vladimir Nikov.

**MANU GALLARDO**
OZENKI ELKARTEA

## "Errezitaldi txikiak ere egin gura ditugu laster, elizetan"



A. A.

Lau kantazalek osatzen dute Ozenki. Manu Gallardorekin izan gara eguazteneko operaren aitzakian.

**Orain bi urte ekin zenioten proiektuari. Zelan?**

Opera gosez bidaia asko egin ostean animatu ginen opera Arrasatera gerturatzera. Hasiera ona izan dugu eta orain, berriz, taldea egonkortzen ari dela esan genezake.

**Hurrengo proiekturik?**

Formatu handiko eskaintza egin dugu orain artean eta zuzeneko musika formatu txikiarekin probatzen saiatuko gara orain, herriko abeslariei ere lekua eginda. Elizarako errezital txikiak egin gura ditugu hiru hilean behin.

**Oraingoan ere, antzokia beteko duzue.**

Poztekoa da; hasieratik gura izan dugu opera guztion eskuragarri egotea.

**Izen handiko protagonistak**

Ohikoa da opera konpainietan protagonista paper bakoitzeko bizpahiru abeslari izatea. Guztiz ziurra ez bada ere, badirudi gurean izango diren protagonistak Ainhoa Garmendia sopranoa (Violetta); Andres Veramendi tenorea (Alfredo) eta Giulio Boschetti baritonoa (Germont) izango direla. "Ahalegindu gara Ainhoa gipuzkoarra etortzeko, orain gutxi Oviedoko *Voz revelación del año Teatro Campoamor* saria eskuratu duena. Veramendi ere oso ona da; ezin hobeto datorkio papera, eta horren erakusle da Portugalen jaso berri dituen kritika onak", dio Gallardok.

Abeslariez gainera, Pleven-eko orkestra sinfonikoa ere badago: "Bulgariakoa da, baina herrialde askotako musikari oso onak batzen ditu: alemanak, frantsesak, ingelesak eta italiarrak. Ibilbide handia dute beste musika esparru batzuetan ere.

**Ia hiru orduko iraupena**

Bi ordu eta berrogeita bost minutu ditu. Bi atsedenaldi egingo dituzte: 15 minutuko bat eta 10eko bat, besteak beste, dekoratuak aldatu ahal izateko.



*La Traviata* operako protagonistak. | OPERA 2001

# Emakume trikitilarien omenezko jaialdia

## Aurtengoa Lizargarate Trikitixa Elkarteak antolatzen duen bosgarren jaialdia izango da



Abuztuan ospatutako Lizargarate eguneko erromeria. | LIZARGARATE TRIKITIXA ELKARTEA

**IMANOL GALLEGO** | OÑATI

Trikiti doinuak beti izan dira gure jaien erakusle, baina Oñatin pauso bat haratago joan dira, bosgarren urtez trikitiaren eta panderoaren festa antolatu dute -eta. Herri-jaia izango da, eta antolatzaileek Santa Ana antzokia betetzea espero dute.

Lizargarate Trikitixa Elkartekoak jaialdi kontuetan eskarmentu handikoak dira, zapatukoa ez baita lehen jaialdia izango. Bada, 17:30etik aurrera, Oñatiko antzokiak igarri egingo du elkarteak egindako lana.

### Emakumeak protagonista

Beste esparru askotan bezala, trikitian ere gizonen eta emakumeen artean ezberdintasun ugari dago. Garai bateko erromerietan gizonezkoek soilik jotzen bazuten ere, azken 20 urteotan joera zeharo aldatu da. Maixa eta Ixiar, Alaitz eta Maider eta halako bikoteek, tradizioa berreskuratzeaz gain, berritu egin zuten.

Zapatukoa jaialdia emakumeak trikiti munduari egindako ekarpen handia saritzera dator. "Emakumeek, trikiti jotzaile bezala ez ezik, trikitia indartzeko ere lan handia egin dute" aipatu digu antolatzaileetako batek.

Askotan gertatu ohi den moduan, emakumeek, lehen lerroa betetzeaz gain, musika mota honen oinarriak ere indartu dituzte. Trikiti eskola gehienetan ikusten denez, tritikiaren hurrengo belaunaldia emakume irakasleek gidatutako emakume trikitilariz beteta dator. Horregatik, jaialdian ere adin askotariko jotzaileek hartuko dute parte.

### Lehen mailako trikitilariak

Herriko trikitilariez gain, eta jaiak eskatzen duen moduan, Euskal Herriko trikiti jotzaile esanguratsuenak etorriko dira. Gonbidatutakoen artean daude Elustondo ahizpak, Eneritz eta Edurne, Kristina eta Amaia... Sarrerak 10 eurotan daude salgai Urbia tabernan eta Oñatiko kultur etxean.

Egun musikatu hori behar bezala bukatzeko, 20 euroren truke, Oñatiko Gaztelekuan, herri-afari itxura izango duen erromeria egingo dute.

# Bergarako 'Peter Pan' musikalak herriko mugak gainditzen dihardu

**A. ARANBURUZABALA** | BERGARA

Bergarako Musika Eskolak *Peter Pan* musikalaren bi emanaldi egingo ditu bihar, egubakoitza, Donostiako Kursaal aretoan; 16:30ean da lehenengoa eta 19:30ean, berriz, hurrengoa. Sarrerak 20 eurotan daude salgai *www.ticket.kutxabank.es* atarian.

### Gasteizen eta Iruñean ere bai

Donostiakoekin, baina, ez dira Bergarako *Peter Pan*-en hegaldiak bukatuko; izan ere, abenduaren 29an, Gasteizko Buesa Arenara eramango dute aurrez Elgetan, Bilbon eta Elorrion erakutsitako musikala eta urtarrilaren 3an, berriz, Iruñeko Baluartera.



Astelehenean Donostian aurkeztu zuten Bergarako musikala. | VALEN MOÑUX

## Iparraldeko Kalakan hirukoteak kontzertua eskainiko du eguenean

2009. urtean sortu zen Kalakan hirukotea. Kontzertu ugari eman ostean, eta 2012. urtean Madonna ezagutu eta gero, MDNA tourrean aritu ziren. Tradizioa eta modernitatea batzen dituen hirukoteak urriaren 31n, 22:30ean, kontzertua eskainiko du. Sarrera 8 euro da.



Bastida, Diez, Arrillaga eta Gorosabel dira egun, taldeko kideak. | SU TA GAR

# Su ta Gar taldea, bihar Oñatin

## Kaleratu berri duten 'Bizirik gaude' diskoa aurkeztuko dute Oñatiko gaztelekuan, 22:30ean

**AITZIBER ARANBURUZABALA** | OÑATI

Eibarko Su Ta Gar taldeak hamar abesti berri batu ditu atsedenik gabeko 40 minututan, *Bizirik gaude* bilduman. Oñatiko gaztelekuan erakutsiko dute bihar, egubakoitza, 22:30ean. Sarrerak 10 eurotan leihatilan daude salgai.

Martitzenean Donostiako Doka antzokian egin zuten prentsaurrekoan azaldu zutenez, lan berria taldearen kutsua daraman sekuentzia bat da: *Ez etsi orain*, *Poema* edo *Bihotzeko su gar hau* abestien heavy klasikoenetatik, *Txakurrak solte* edo *Bizirik gaude* abestien erritmo suntsitzaileetara eta nola ez, baladak ere tartekatu dituzte: horiek, *Zure argia* eta *Zure baitan* abestiak.

Kantuen hitzak, berriz, Euskal Herriari eta euskarari buruzkoak direla dio taldeak, gaineratuz, ikuspegi zabalago batetik jorratu dutela borroka: bizirik jarraitzeko borroka eta sentimenduen borrokari kantatuz, besteak beste. *Bizirik gaude* laneko testu gehienak, Aitor Gorosabel abeslariak egin dituen arren, badira Borxa Arrillagarenak (hastapenetako Su Ta Gar taldearen bateria-jolearenak) eta baita Iker Rocandio, Su Ta Garren ohiko letra egilearenak ere.

### Estudioko hamargarren lana

Su Ta Garrek eutsi egin dio duela zazpi urte hartu zuen autoekoizpenaren aukerari; hori horrela, Aitor Ariñoren eskuetan jarri dira beste behin eta Berrizko Lorentzo Records-en grabatu eta masterizatu dute atzo geroztik salgai dagoen eibartarren azkeneko lana. Gaur egun taldean, Aitor Gorosabel eta Xabi Bastidarekin batera, Igor Diez eta Galder Arrillaga daude.

# Debagoieneko bertsolariak Txapelketa Nagusian

**A. A.** | ARRASATE

Zapatuan Oionen egingo duten Euskal Herriko Bertsolari Txapelketako azken kanporaketan, Debagoieneko ordezkariak izango dira taularen gainean: Manex Agirre aramaioarra eta Aretxabaletan bizi diren Miren Amuritza eta Maddi Sarasua. Bertsolari Txapelketa Nagusian lehenengo aldia dute Agirrek eta Sarasuak eta bigarrena, berriz, Amuritzak.

Arroyo I pilotalekuan, 17:30ean izango da zapatuko saioa, eta, aipatutako Debagoieneko ordezkariez gainera, Etxahun Lekuek, Iratxe Ibarrak eta Eneritz Zabaletak ere hartuko dute parte. Sarrerak aurrez erosteko: *bertsosarrerak.eu* helbidean.

# Los Galerna taldea diskoa aurkezten dabil: 'Akelarre'

**I.G.** | ARRASATE

Mexikon bira egin eta gero, disko berria etxean aurkezteko txanda iritsi da. Arrasateko eta Bilboko kontzertuen ostean, Los Galerna taldeak Bergaran eta Oñatin erakutsiko du bere zuzeneko menderakaitza. Bergaran, Lainon joko dute, 22:30ean hasita, eta domekan Oñatiko Paco tabernan izango dira, 19:00etan. Ez dute entzulerik eserita lagako.

### 'Akelarre': rockaren festa

Surf estiloa nagusi izan arren, western, swing eta garage ukitu nabarmena duten hamar abestik osatzen dute arrasatearraren disko berria. Abestiei darien estilo nahasketa hori adierazi guran, *Akelarre* izena jarri diote.

**Jon Suinaga** | Idazlea

# "'Allende los mares' esaldiak esanahi handia du niretzat"

"Idazten hasi aurretik garbi neukan interesatzen zaizkidan gaiez idatzi behar nuela: baleen arrantza, garaia eta azken esaldia nituen pentsatuta"



Jon Suinaga bergararra idatzi duen lehen eleberriarekin. | ENEKO AZKARATE

**IMANOL BELOKI** | BERGARA

Jon Suinaga (Bergara, 1967) ingeniari elektronikoa da lanbidez, baina idazlea afizioz. Lehen eleberria idatzi berri du, *Allende los mares* (Hiria) izenekoa.

**Zer kontatzen da eleberrian?**

XV. mendean kokatzen den eleberri historikoa da. Euskal Herriko kostaldean hasten da istorioa, baleak arrantzatzera joaten ziren garaian. Hortik aurrera, krimen bat gertatzen da eta intrigaz jarraitzen du eleberriak.

**Zer dela eta idatzi duzu gai horren inguruan?**

Idazten hasi aurretik garbi neukan interesatzen zaizkidan gaiez idatzi behar nuela. Baleen arrantza, garaia eta azken esaldia nituen pentsatuta eta eleberria osatzeko krimen bat sartu nuen hari gisa.

**Zergatik *Allende los mares* izenburua?**

*Allende los mares* esaldiak esanahi handia du niretzat. Ozeanotik haratago dagoena da. Abenturazko garai bat. Liburuan kontatzen denarekin lotuta dago.

**Zergatik kokatu duzu XV. mendean?**

XV. mende amaieran Nafarroako erreinua, Gaztelako erreinua, probintzia euskaldunen egoera, aurkikuntzen garaia da... joko handia ematen dute gai hauek. Asko irakurri dut gai hauen inguruan eta irakurtzen dudanaren gainean idaztea gustatzen zait.

**Eleberria idazteak dokumentazio lan handia eskatu al dizu?**

Bai, eleberriaren atal garrantzitsuena izan da. Eleberri bat idazteak dedikazio eta ordu asko eskatzen ditu, baina eleberri historiko bat idazteak idazten duzun guztia ikertzea, errepasatzea eta gaiaren inguruan irakurtzea eskatzen du.

**Nondik datorkizu idazteko zaletasuna?**

Gaztetatik nuen irakurtzen nuenari buruz idazteko ohitura. Nahiz eta denbora batez alde batera utzi dudan idaztea; lana, familia eta ikasketak direla eta, azken urteotan berreskuratu, eta hemen dago nire emaitza.

**Non idatzi eta pentsatzen duzu?**

Idazteko momentuan isiltasuna beharrezkoa da. Pentsatzeko, aldiz, ez dut leku finkorik; askotan, gauetan, ohean nagoenean edo kirola egiten ari naizenean pentsatzen dut.

**Zein izan da lagunen eta familiakoen erreakzioa?**

Lagunak ezustean harrapatu ditut. Jendeak ez zuen eleberriaren berri. Eleberria irakurtzeko animatuta eta gogoz daude. Batzuek dagoeneko erosi dute eleberria, eta, oraingoz, ez ditut kritika txarrak jaso.

**"Idazteko momentuan isiltasuna beharrezkoa da"**

**Nola joan da eleberriaren aurkezpena?**

Duela aste batzuk banatu ziren liburuak liburu-dendetan eta urriaren 23an Koldo Mitxelenan komunikabideen aurreko aurkezpena izan zen. Hilaren 30ean, aldiz, Bergaran lagun arteko aurkezpena izango da. Bergararra izanda, ezinbestekoa. Eleberriak sinatu eta liburua erosi nahi duenarentzat izango da. Aurrerago ere izango ditugu aurkezpen txikiagoak liburu-dendetan, Bergaran egingo dugunaren antzera.

**Liburua zein formatutan dago erosteko?**

Hiria editorialak ez du liburu elektronikorik eskaintzen. Paperean bakarrik dago, oraingoz; aurrerago, berriz, ikusiko dugu.

**Hemendik aurrera proiekturen bat?**

Ba, beste eleberri batekin hasi nahiz. Lehenengoarekin ez du alderik eta gaur egunean kokatzen da, serie beltzei eta detektibeei omenaldia da. Bilbon kokatzen da istorioa eta umorez beteta egongo da.


Yllana antzerki taldearen *Far West* ikuskizuna. | YLLANA

# Yllana antzerki taldearen 'Far West' ikuskizuna Espaloian

Western generoko antzezlan horrekin umorez beteko dute Espaloia bihar gauean, barikua

**I.B** | ELGETA

Yllana antzerki konpainiaren antzezlan umoretsua ikusteko aukera izango da Elgetako Espaloia kafe antzokian bihar, egubakoitza, 22:30ean. Sarrerak 15 eurotan daude salgai Espaloia kafe antzokian, eta 943 78 90 85 telefonora deituta ere lor daitezke. Bazkide direnek, gainera, merkeago izango dute sarrera, 12 eurotan.

Umorez beteriko antzezlana publiko guztientzat zuzendutako saioa izango da eta lehen aldiz jorratuko du antzerki talde horrek western generoa. Ez da izango Espaloian antzeztuko duten lehen aldia, aurretik ere hainbat ikuskizun eskaini baitituzte Elgetako antzokian.

Baserritar xume batek bere bikotekide izango den neska jasoko du Mendebalde Urruneko tren geltoki batean. Hala ere, lehen musua eman aurretik, bahitu egingo dute bi gaizkilek. Baserritarra hainbat modutan saiatuko da gaizkileen eskuetatik neska askatzen. Baina, bahituta dagoen bitartean, bahitutako emakumeak amestu ezin zituen balioak aurkituko ditu bere barnean, heroi bihurtzeraino. Anti-heroien epopeia horrekin, lege gabeko mundu basatia ezagutarazteko antzerkia izango da; indiar tribuak, arriskuz beteriko basamortuak, taberna zuloak, eguzki gogorraren azpiko dueluak eta, kalitate oneko westernak bezala, akziodunа. Horrela, Mendebaldeko filmen munduari omenaldia egiten diote.

**Taldearen ibilbide luzea**

1991n sortutako antzerki taldea keinu bidezko umorea egiten hasi zen, baina gaur egun dibertsifikatu egin dute euren lana arte eszeniko eta ikus-entzunezko zerbitzuekin osatuta. Juan Francisco Ramos, Marcos Ottone, David Ottone, Joseph O' Curneen eta Fidel Fernandezek osatzen dute taldea eta 22 urtetan hainbat lan ezagun sortu dituzte: *¡Muu! (1991), Glub, Glub (1994), 666 (1998), Hipo (1999)* eta *Rock and Clown (2000)*... besteak beste.

Alde batetik, ikuskizunen sorkuntzan, produkzioan eta banaketan jarduten dute, eta, beste alde batetik, hainbat proiektu kultural garatzen dituzte. Antzerki ikuskizunez gain, zineman, telebistan eta publizitatean ere lan ederrak egin dituzte. Talde gaztea da, eta nazioartean ere ibili da.


Anger taldearen disko aurkezpeneko kontzertua. | IMANOL SORIANO

# 'Musikazuzenean' webgunearen 3. urteurreneko kontzertua Arrasaten

**I.B** | ARRASATE

*Musikazuzenean* atariaren hirugarren urtemuga ospatzeko kontzertuak egingo dituzte Arrasateko Gaztetxean. Zapatuan izango dira, 22:00etan, eta 5 euro kostako da sarrera. Bada, zenbait talde izango dira zuzenean: Itziarren Semeak, Iheskide, Sermonds eta Anger, hain zuzen ere.

